

Dosierra

Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoen babesa gatazka armatuetan.

Nazioarteko eta genero-ikuspegia

Ana María Palacios Briceño



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE SOCIEDAD Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTKO LANBETZA ETA GARAPENARI BURDIN BARRERA INSTITUTUA

Dosierra

Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoen babesa gatazka armatuetan.

Nazioarteko eta genero-ikuspegia

Ana María Palacios Briceño



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE ECONOMÍA Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INSTITUTO LANBIZTA ETEN GARAPENEN BURDIO BAZTEA EUSKAL HERRIETAN

Argitalpen hau *Trantsiziozko justizia eta kritika feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoriozko zigorgabetasun patriarkalaren aurkako* baliabideak Proiektuaren esparruan egin da. PRO-2018K30031. GLEAren laguntzarekin.



Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoen babesa gatazka armatuetan. Nazioarteko eta genero-ikuspegia

Egilea: Ana María Palacios Briceño

2020



www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU • Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 **Bilbao**
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza 2 • 20018 **Donostia**
Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Campuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33 • 01006 **Vitoria-Gasteiz**
Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

Itzultzailea: Maku Florentino Garbizu

Imprimatzailea: Printheus S.L.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege gordailua: BI 02064-2020

ISBN: 978-84-16257-71-3



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopianu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Dosierra

Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoen babesa gatazka armatuetan. Nazioarteko eta genero-ikuspegia

Ana María Palacios Briceño. Abokatu feminista, giza eskubideetan aditua, esperientzia handikoa nazioarteko auzien estrategietan eta lege-eraginean. Zuzenbidean lizentziatua da Venezuelako Andrés Bello Unibertsitate Katolikoan, eta titulu homologatua du Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Masterra du UPV/EHUko Hegoa Institutuan, bai eta Abokatutzako Masterra ere unibertsitate berean. Europako eta Latinoamerikako erakundeei laguntzen die migrazio behartuarekin, generoarekin eta giza eskubideekin lotutako ikerketetan. Aholkulari eta legelari gisa ere lan egiten du Abella Legalen, eta CIVICUS Monitor erakundeko Aholku Batzordeko eta FeministAlde kolektiboko kide da.

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoenerako hurbilpena	9
2.1. Edukia eta ezaugarri nagusiak	9
2.2. EESKIak genero-ikuspegitik begiratuta	13
3. EESKIak gatazka armatuetan eta bestelako gatazka egoeratan	17
3.1. Gatazka armatuaren existentzia juridikoki zehazteko nozio orokorrak	17
3.2. EESKIen indarraldia gatazka armatuetan	19
4. EESKIak babesteko nazioarteko tresnak eta giza eskubideen aldeko erakundeen aipamenak	23
4.1. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa	23
4.2. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea	26
4.2.1. Nazio Batuetako itunen organoak	28
4.2.2. Giza Eskubideen Kontseilua	36
4.2.3. Nazioarteko Lan Erakundea	37
4.3. Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidea	38
4.4. Nazioarteko Zigor Zuzenbidea	39
5. Jurisdikzio-organoen jurisprudentzia eta doktrina	41
5.1. Nazioarteko auzitegiak	42
5.2. Erregio-auzitegiak	43
5.3. Nazio-auzitegiak	45
6. Gatazka armatuetan EESKIen babesean aurrera egiteko erronkak eta aukerak	47
7. Erreferentziak	49

1. Sarrera

Gatazka armatuetara aplikaturiko genero-ikuspegiari arreta handia jarri zioten nazioartean XX. mendearen amaieran; eta horren erakusgai da emakumeen (neska gazte eta haurrak barne) eta LGBTI pertsonen¹ eskubideak babesten dituzten giza eskubideen tresnen ugaritzea. Hala eta guztiz ere, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak, 1325 ebazpenaren bidez, gatazka armatuek gizonengan eta emakumeengan desberdin eragiten zutela onartu eta 20 urtera, testuinguru horietan genero-indarkeria oso nabarmena da, eta zigorgabetasun eta eragin kolektibo handiak ditu.

Feminismoak gatazka armatuen ikerketari egindako ekarpenetan argi ikusten da generoak indarkeria modu berezi eta larriagoak zehazten dituela, bestelako diskriminazio faktore batzuekin batera; hala nola, arraza, klasea edo sexu eta genero identitatea. Nahiko genukeenaren kontra, gatazka armatuetan sexu-indarkeria eta esklabotzak, behartutako ezkontzak, behartutako esterilizazioak eta bestelako genero-indarkeria mota batzuk bizi izan dituzten pertsonen errealitatea ez da bereziki aldatu (Bernarding *et al.*, 2020: 6).

Azkeneko bi hamarkadatan, generoa eta gatazka armatuen inguruko eztabaidaren ardatza sexu-indarkeria izan da, bereziki emakumeak kaltetzen dituen gerra-estrategia gisa (Nahhal, 2017)², eta biztanleria zibila umiliatzea, menderatzea, beldurtzea, sakabanatzea edo berriro finkatzea xede dituen taktika gisa (Nazio Batuetako Segurtasun Kontseilua, 2008). Horren ildoan, gaur egungo estatuko eta nazioarteko arau-markoek sexu-indarkeria guztiz arbuigarria den portaera gisa onartzen dute, eta oso modu zabalean tipifikatu

1 Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eskaintzen duen babes berezia ez da identitate onartuak dituzten emakume eta nesketan eskubideetara mugatzen, pertsona lesbiana, gai, bisexual, transgenero, intersex eta bestelako ez- arauzko identitateak dituzten pertsonen eskubideak ere babesten ditu (LGBTI) (OHCHR, s. f.).

2 2018 eta 2019 urteen artean, emakumeak eta neskek gatazka egoeretako sexu-indarkeriaren biktimen % 95 ziren (Escola de Cultura de Pau, 2020: 16).

ere bai; gehituta gerra-krimena edo gizateriaren aurkako krimentzat ere hartua izan daitekeela eta erreparazio osoa eman behar zaiola. Zalantzarik gabe, paradigma horrek hainbat erreforma politiko eta juridiko eragin ditu, indarkeria mota horri aurre egin ahal izateko.

Dena dela, diskurtsoaren ardatza sexu-indarkeria denean, gatazka armatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketen konplexutasunak ikertzeko aukera galtzen da. Maria Stern eta Maria Eriksson Baaz (2013) egileek planteatzen dute sexu-indarkerian bereziki zentratzeak emakumeek eta LGBTI kolektiboko pertsonak bizi behar dituzten bestelako indarkeria mota batzuk baztertzeko dituela, hala nola: senitartekoak galtzea, etxebizitza eta bizimodua galtzea, lurra, jabetzak, baliabide naturalak edukitzeari buruzko lege diskriminatzaileak aplikatzea, edo euren ugaltzeko gaitasun eta autonomian eragitea.

Txosten honen helburua da eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak (aurrerantzean EESKI) ikuspegi feministatik³ eta gatazka armatuetan aplikagarri diren giza eskubideen eremuari dagozkion Nazioarteko Zuzenbideko hainbat adarren ikuspegi oso batetik babesten laguntzea. Lehenik eta behin, EESKIen edukia eta ezaugarri nagusiak aztertuko dira, bai eta emakumeentzat eta LGBTI kolektiboko pertsonentzat duten garrantzia. Ondoren, gatazka armatuetan eskubide horiek duten indarra aztertzen da, ikuspuntu juridikotik dauden gatazka tipologiak kontuan hartuta. Hirugarrenik, EESKIak babesteko nazioartean dauden tresnak nabarmenduko dira, eta gai horren inguruan dauden nazioarteko oinarritzko hitzarmenen interpretazioari buruz Nazio Batuen giza eskubideen organoen gomendio nagusiak eta txostenak laburbilduko dira. Eta azkenik, eskubide horien urraketa larrien aurrean jurisdikzio-organoei emandako iritziak eta epaiak azalduko dira eta, amaitzeko, EESKIen babesean aurrera egiteko aukerak eta erronkak identifikatuko dira.

3 Indarkeria armatuko testuinguruetan gizonen eta mutilen eskubideei eragiten zaizkien kalteak ulertzeko ere ikuspegi feminista har daitekeen arren, dokumentu honetan emakumeen esperientziak hartu dira ardatz, bereziki, LGBTI pertsonen eragiten dieten egoeratan.

2. Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoenerako hurbilpena

2.1. Edukia eta ezaugarri nagusiak

Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak izaera sozialeko giza eskubideak dira pertsonari bizimodu duina izatea ahalbidetzen diotenak, eta norbanakoaren eta taldearen ongizatea lortzeko gutxieneko baldintza egokiekin. EESKiek bi oinarri dituzte: (i) Pertsonen oinarrizko beharriaz hartzeko (ura, elikadura, hezkuntza, kultura parte hartzea, etxebizitza, osasuna, gizarte-segurantza, besteak beste); eta (ii), pertsonak, bizimodu duina izan dezaten, dituzten gaitasunak hobetzeko eskubide multzoa bermatzea (O'Connell, 2012: 4-5). Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (aurrerantzean EESKNI), EESKIn edukia garatuz joan da nazioarteko eta eskualdeko hainbat itunen, konstituzio eta legeen⁴ bidez, bai eta gaiari buruzko jurisprudentziari dagokionez ere (Langford *et al.*, 2017: 17-20).

Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbideko teoria garaikideek eta hainbat eragile berri agertu izanak indartu egin dituzte giza eskubideen artean dauden banaezintasunaren, interdependentziaren eta erlazioaren

4 Hitzarmenei dagokienez, Giza Eskubideen Afrikako Sistemari, Giza eta Herrien Eskubideen Afrikako Ituna (1981); Giza Eskubideen Europako Sistemari, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena (1950) eta horren Protokolo Gehigarria (1954), eta Europako Gutun Soziala (1961); eta Giza Eskubideen Sistema Interamerikarrean, Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioaren Protokolo Gehigarria Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalari dagokienez (San Salvadorreko Protokoloa, 1988). Konstituzio eta legeei dagokienez, hona hemen adibide batzuk: Boliviako Konstituzioaren 13. artikulua eta hurrengoa; Ekuadorreko Konstituzioaren II. Kapituluak; Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua; eta Hegoafrikako Konstituzioaren 26. artikulua eta hurrengoa.

inguruko argudio juridikoak (Rodríguez-Garavito, 2014)⁵. Banaezintasun eta interdependentzia horrek hainbat EESKIren dimentsioak aztertzea ahalbidetzen du, bizimodu duin eta osotasun pertsonalerako eskubidearen kontzeptuari lotuta. EESKNIen 11. artikuluari jarraikiz, pertsona guztiei errespetatu, babestu eta bermatu behar zaie bizi-maila egokia, eta elikagai, ur, etxebizitzarako eta bizi-kalitatearen etengabeko hobekuntzarako eskubideak sartzen dira hor. Eskubide horrek ezinbestean hartzen du eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumeneko guztiak betetzea, eta estu lotuta dago bizitzarako eskubidearen interpretazio ez-murriztailearekin:

“Bizitzarako eskubidea oinarrizko giza eskubidea da, eta eskubide hori gauzatzea alde aurreko betekizuna da gainerako giza eskubideak gozatu ahal izateko. Hori errespetatzen ez bada, gainerako eskubide guztiek ez dute zentzurik. Bizitzarako eskubidearen funtsezko izaera dela eta, ezin da eskubide hori murrizten duen ikuspegirik onartu. Funtsean, bizitzarako oinarrizko eskubideak bere baitan dakar gizaki orok nahierara bizitzaz gabetua ez izateko duen eskubideaz gain, bizitza duina bermatuko dioten baldintzak betetzea inork ez eragozteko eskubidea ere. Estatuak betebeharra dute oinarrizko eskubidearen urraketarik gerta ez dadin bermatzeko baldintzak sortzea eta, bereziki, betebeharra dute estatuaren eragileek eskubide hori urra dezaten saihestea” (*Villagrán Morales eta beste batzuk vs. Guatemala kasua. Funtza. 1999ko azaroko epaia. Serie C. No. 63, 1999, par. 144*)⁶.

Exekuzio estrajudizial, sumario edo arbitrarioen Nazio Batuetako errelatore bereziak argi eta garbi adierazi zuen bizitzarako eskubidearen eta EESKIen arteko interdependentzia onartzea ezinbesteko urratsa dela emakumeen eskubideak babesteko, “[...] Emakume eta neskek elikagaietara, osasun zerbitzuetara, ura, lurra edo ondasunetara iristen ahalegintzean jasaten

5 1990eko hamarkadaren hasieran, Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren Vienako Adierazpena eta Ekintza Programak (1993) ezarri zuen eskubide guztiak modu berean eta indar berarekin tratatu behar direla: “Giza eskubide guztiak unibertsalak dira, banaezinak eta interdependentek, eta elkarriz lotuta daude”. Eskubide zibil eta politikoen eta EESKIen arteko lotura eta banaezintasunak ez du ukatzen azken horien izaera autonomia. Ikus baita ere giza eskubideen gozatze unibertsalerako eskubideari buruzko 1. Printzipioa. Yogyakarta Printzipioak (2006).

6 Horren ildo berean mintzatu da Giza Eskubideen Afrikako Batzordea ere bizitza duinerako eskubideari buruzko 3. Ohar Orokorrean.

dituzten genero-zioko diskriminazioak, sarritan, gurutzatu egiten direlako arraza, erlijio, indigena izatea, genero-identitate edo genero-adierazpenagatiko bestelako diskriminazioekin” (Giza Eskubideen Kontseilua, 2017, par. 89).

Urte askoan mito faltsu baten arabera, eskubide zibil eta politikoak hierarkian EESKIn gainetik zeudela uste izan zen, bi balizkotan oinarrituta: (i) eragiten dituzten betebeharragatik, eta (ii), eskubide zibil eta politikoen zuzeneko exijigarritasunagatik (ACNUDH, s.f.). EESKIn kontzeptualizazio tradizional hori –heine handi batean– gainditu den arren, oraindik ere indarrean daude bi eskubide-kategoria horien arteko erretorika dikotomikoa eta horiek babesteko eragozpenak; hala nola: justiziara iristeko bide eta legezko baliabide eraginkor eta egokirik eza (salaketarako bermerik eza, biktimak eta lekukoak babesteko programetan ahulguneak); gizartean eta operadore juridikoetan genero-estereotipoak gailentzea; justizia administrazio-sisteman mesfidantza eta ahultasuna; akonpainamendu psikosozialik eza; eragozpen ekonomiko eta geografikoak, eta baztertutako pertsonen buruzko informaziorik eza (Guzmán Rodríguez eta Prieto Dávila, 2013, or. 58 eta hur.).

Azpimarratu behar den beste alderdi bat da historian zehar EESK soilik aipatu izan direla, ingurumen alorreko eskubideak beren beregi kanpoan utzita. Hala ere, hainbat fenomenoren larrialdiak eraginda –hala nola, globalizazio neoliberalaren testuinguruan nazioz gaindiko merkataritza-jardueren hazkundera, ingurumenaren narriadura, klima-aldaketa eta planetaren baldintza sozial, ekonomiko, kultural, klimatiko eta ekologikoei eragiten dieten beste hainbat–, arazo ekologikoak giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspegitik aztertzea ahalbidetzen duten argudioak garatu dira, eremu judizialean batik bat, eta argudio horiek bidezkotu egiten dute ingurumen alorreko eskubideak beren beregi aipatzea (Cerqueira, 2020). Izan ere, interdependentzia-erlazio bat dago giza eskubideen eta ingurumenaren babesaren artean. Ingurumenerako eskubidea estu lotuta dago eskubide ekonomiko eta sozialekin, pertsonen bizitzari eta segurtasunari baitagokio (GEAI, *Lhaka Honhat (Gure Lurra) elkarteko komunitate indigenak vs. Argentina kasua*, 2020, par. 202 eta hur.; GEAI, OC-23/17, 2017, par. 47). Giroa osasungarria ez bada, ezin da giza duintasunerako gutxienekoen arabera bizi. Aldi berean, giza eskubideak babesteak ingurumena babesten laguntzen du (Giza Eskubideen Kontseilua, 2018, par. 15-16).

Azkenik, giza eskubideen urraketak gertatzen dira Estatu batek nazioarteko itunetan ezarritako errespetu, babes eta berme betebeharren kontrako egintza bat gauzatzen duenean. EESKiei alorrean estatuek dituzten betebeharrak dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke: berehalako neurriak hartzea,

progresibitate-printzipioa aplikatzea eta atzera egiteko debekuaren printzipioa aplikatzea. Beste alde batetik, Nazioarteko Ingurumenerako Eskubideak betebeharrak zehatz batzuk ere ezartzen ditu: prebentzio-printzipioa, ardura-printzipioa, ingurumen-inpaktuen ebaluazio-printzipioa eta informazio, partizipazio eta justiziarako irispide-printzipioa⁷. EESKNiz gain, bestelako tresna batzuk ere badaude, lotesleak ez izan arren, EESKIen edukia interpretatzeko eta estatu batek bere betebeharrak noiz urratzen dituen identifikatzeko baliagarriak direnak: EESKNIren inplementazioari buruzko Limburgeko Printzipioak (1987); Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen urraketari buruzko Maastrichteko Jarraibideak (1997); Afrikako Giza Eskubide eta Herrien Eskubideen Gutuneko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak inplementatzeko Printzipioak eta Jarraibideak (2010); eta muturreko pobrezia eta giza eskubideei buruzko Printzipio Artezleak (2012).

Laburpen gisa, honako hau esan daiteke EESKIEi buruz:

1. Eska daitezkeen eskubideak dira, ez dira arau programatikoak, ez printzipio ez konpromiso politikoak ere.
2. Estatuentzat⁸ betebeharrak positiboak eta negatiboak bateratzen dituzte.
3. Eskubide zibil eta politikoekin lotuta daude, pertsonen bizitzan eta osotasunean dituzten eraginak ere haiek urratzearen ondorioz sor baititezke. Esaterako, osasunerako eskubidea ukatzea osotasun pertsonalerako eskubidearekin lotuta dago.
4. Eskubide justiziagarriak edo babes judiziala dutenak dira; hau da, jurisdikzio-organoen aurrean eska daitezke.

7 Ikusi, besteak beste: Anistasun Biologikoari buruzko Hitzarmena (1992), Klima Aldaketari buruzko Hitzarmen Markoa (1992), Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei buruzko Konbentzioa (Ramsareko Konbentzioa, 1971), Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena (1992) eta Latinoamerikan eta Kariben Ingurumenari buruzko gaietan Informaziorako irisgarritasunari, parte-hartze publikoari eta Justiziarako Irisgarritasunari buruzko Eskualdeko Hitzarmena (2018).

8 Estatuak neurri positiboak hartu behar dituzte hartu dituzten konpromisoak betetzeko (betebeharrak positiboak) eta, beste alde batetik, giza eskubideen benetako gozatzea eragozteko saihestu behar dute (betebeharrak negatiboak). Globalizazio neoliberalaren testuinguru honetan, estatuak zentralizatu erantzukizun-esleipenaren teoria tradizionalarekin kritikoa den ildo bat dago, estatu-nazioek eta bertako gobernuak subiranotasuna galduko dutelakoan beste eragile batzuen mesedetan, esaterako, botere ekonomiko, juridiko eta politiko handia metatzen duten nazioz gaindiko enpresen aurrean. Horren ildoan, ikusi honako hau: González, Hernández Zubizarreta eta Ramiro (2018) eta Van Ho (2019).

2.2. EESKIak genero-ikuspegitik begiratuta

Ez-diskriminazio eta berdintasun printzipioak giza eskubideen nazioarteko markoaren funtsezko osagaiak dira, eta ezinbestekoak, gainera, EESKIak gozatzeko eta gauzatzeko. Era berean, pobrezia, ezberdintasunaren, bazterkeriaren eta estigmatizazioaren feminizazioarekin lotutako gaitan duten eginkizunagatik, EESKIak bereziki garrantzitsuak dira emakumeentzat eta LGBTI kolektiboko pertsonentzat. Yogyakarta Printzipioek (2006), 12tik 18.era eta 26. xedapenetan jasotzen ditu estatuek EESKIak errespetatzeko, babesteko eta bermatzeko dituzten betebeharrak, sexu-orientazio eta genero-identitateagatik inolako diskriminaziorik eragin gabe. Beste alde batetik, Arraza-diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko Nazioarteko Konbentzioaren 5. artikulua xedatzen duenaren arabera, estatuek arraza-diskriminazioa (arrazak, kolorea eta jatorri nazional edo etnikoa) debekatu eta desagerrarazi behar dute, bereziki EESKIei dagokienez.

Emakumeen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Montrealgo Printzipioetan (2002) jasotzen da emakumeen bizi-baldintzetan ageri den ezberdintasunaren erroak botere-egitura asimetrikoetan daudela eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzeko aukerak mugatzen dizkiola emakumeari, batez ere egungo testuinguru neoliberean. Horrela, bada, bazterte sozial eta ekonomikoa sakondu egiten da gatazka eta gatazka osteko egoeretan edo zehapen ekonomikoak ezartzean (Emakume adituen taldea, 2002: 2-4). 2019an, “genero-berdintasunari buruzko datuak zeuden gatazka armatuen % 83 genero-diskriminazio ertain, altu edo oso altuko testuingurutan gertatu ziren” (Escola de Cultura de Pau, 2020: 138). Eta horregatik da garrantzitsua indarkeria armen erabilerak eta militarismoak larriagotzen duten egiturazko diskriminazio marko zabal batetik ulertzea”. Emakumeen kontrako indarkeria sistematikoki, planifikazioarekin eta maila handian gauzatzen da, eta oso militarizatuta eta “gehiegizko segurtasunaren” pean dauden eremuetan bizitzeak zuzenean eragiten du emakumeen osotasun fisiko eta psikologikoan eta euren eskubideen gauzatzeko (Mendia Azkue, 2017: 23). Gainera, LGBTI kolektiboko pertsonak helburu identifikagarri bihurtzen dira gizartean dauden estigma eta aurreiritzien ondorioz (Margalit, 2018: 238).

Historian zehar, ordena patriarkal, kolonial, heteronormatibo eta kapitalistak gutxietsi egin ditu emakumeak eta LGBTI kolektiboko pertsonak, eta diskriminazioa eta ezberdintasuna areagotu egiten dira indarkeria armatua dagoen testuinguruetan. Genero bakoitzari esleitzen zaizkion funtzioak eta pairatzen dituzten ezberdintasunak areagotu egiten dituzte eragindako kalteak:

“generoagatiko kalteek, bistan da, kalte fisikoak eta gorputzean eragindakoak hartzen dituzte, baina, sarritan, aintzat hartzen ez diren kalteak ere bai: kalte sozioekonomiko eta kalte moral zehatzak, esaterako, eta hainbat giza eskubideren erabileran eragin negatiboa dute” (Giza Eskubideen Kontseilua, 2019a, par. 89).

Esaterako, gatazka armatuetan, azpiegitura publikoaren suntsipenak eta oinarrizko zerbitzurik ezak askoz eragin handiagoa dute emakumeengan, eta “emakumeak dira gatazkaren dimentsio sozioekonomikoek gehien kaltetzen dituztenak” (CEDAW batzordea, 2013, 14; Women’s International League for Peace and Freedom, 2019). Okupazio militarreko testuinguruan, mugikortasuna mugatzea eta kontrol-postuak eragozpen handia dira bizirik irauteko baliabideetara iristeko eta haiek kontrolatzeko, eta emakumeen kontrako gehiegikeriarako aukera ere badira (Aolain, 2020: 359; Mendia Azkue eta Guzmán Orellana, 2016: 70). Familiak bizirik irauteko beste iturri batzuk bilatzera behartuta daude emakume asko, landa-eremuetan batez ere, borrokek nekazaritza-laboreetara iristea eragozten dutelako eta bizitzeko moduak suntsitzen dituztelako. Gainera, beste eragozpen bat ere bada, gizon eta haurren heriotzen erregistrorik ez egotean, emakumeek ezin dute euren oinordetza-eskubidea erabili (Giza Eskubideen Kontseilua, 2019a, par. 90 eta 92).

Gatazka armatuetan behartutako lanari loturiko arrisku-faktoreak ere areagotu egin daitezke, eta emakumeen kasuan, elkarri lotutako hainbat egoera eragin ditzake horrek: etxeko behartutako lanak, sexu-esklototza eta nahitaetzko ezkontza (UNODC, 2018: 14). Gainera, lan-espazio informaletan hasten dira normalean, edo lan-baldintza prekarioetan “lan-eskaintza oso txikia delako, teknifikazio eta profesionalizazio prozesurik ez dagoelako herritarrentzat eta sexu-genero dibertsoko pertsonak izateagatik bizi duten bazterkeriagatik” (OIM-Misión Colombia, Caribe afirmativo eta Colombia Diversa, 2019: 34).

Hezkuntzari dagokionez, talde armatuek ikastetxeei eraso egiteak edo haiek okupatzeak neurri gabeko ondorio diskriminatzaileak ditu neskak eta emakumeentzat (CEDAW batzordea, 2017b, par. 48). Neska gazteek ohikoak baino eragozpen gehiago aurkitzen dituzte eskolara joateko, besteak beste, haien kontrako erasoen eta mehatxuen beldur direlako eta zaintza-lanetan ardura gehiago dituztelako⁹. Hezkuntzara iristeko beste eragozpen

9 Gatazkek eragindako herrialdeetako neskek 2,5 aukera gehiago dute eskolatuak ez izateko, bestelako testuinguruetan bizi diren nesken aldean (San Pedro, 2019: 11).

batzuk honako hauekin lotzen dira: nahitaezko errekrutatzea, hezkuntzaren kalitate maila baxua, irakasle kualifikaturik eza, material gutxi eta familiek eskolako gastuei aurre egin ezin izatea (Amnistía Internacional, 2020: 11). Gainera, LGBTI kolektiboko pertsonak hezkuntza zentroetan jazartzea, xaxatzea eta baztertzea ohiko egoerak dira, eta horri aurre egin behar izaten dio ikasleen multzo handi batek, maskulinitateari eta feminitateari buruzko kultur-sinesmen sendoetan errotuta daudenak (Madrigal-Borloz eta Boly Barry, 2020). Azkenik, lurralde okupatueta hezkuntza-sistema herritarrek kulturagabetzeko edo norbereganatzeko tresna gisa erabili ohi da, “[...] balio estrategiko handia eman baitzaio horri, identitate kolektiboa, izatearen sentipena eta errebindikazio-espirituari eusteko bete ditzakeen funtzioak kontuan hartuta” (Mendia Azkue eta Guzmán Orellana, 2016: 74).

Osasunari dagokionez, krisialdi humanitarioetan eta gatazka armatuko egoeratan bizi diren emakume eta neskek gogoz kontrako haurdunaldi gehiago bizi dituzte, zerbitzuetarako irispidean oztopoak eta amen hiltze-tasa handiagoa ere bai¹⁰. LGBTI kolektiboko pertsonak gehiegikeria fisikoak eta ahozkoak pairatzen dituzte, eta nahitaezko ebaluazio eta prozedura inbaditzaileak ere bai. Emakume lesbianek gehiegikeriak jasaten dituzte osasun-langileengandik eta trans emakumeei ukatu egiten dizkiete tratamendu medikoak (EESK batzordea, 2006, par. 30; Human Rights Watch, 2018: 19-20).

Ugalketa-indarkeria gutxiegitan aztertu¹¹ izan da gatazketan nagusitu egiten den arren: “zenbait kasutan, ugalketa-indarkeria sexu-indarkeriarekin lot daiteke, baina beste batzuetan ez, eta horregatik aztertu behar da bereiz; eragiten dituen kalte espezifikoengatik, bestelako giza eskubideen urraketa ere barnean ekar dezakeelako eta fenomeno zehatz bat aipatzen duelako: ugaltzeko gaitasunari edo ugaltzeko autonomiari kalteak eragiten dizkieten ekintzak” (Cocomá Ricaurte eta Laguna Trujillo, 2020). Horren ildoan, esaterako, Kolonbiako Egiaren Batzordeak ikuspegi zabal eta duin batetik egin zuen sexu- eta ugalketa-indarkerien definizioa, hainbat indarkeria barnean hartzen dituena: “Gorputzak indarkeriaz hartzea (sexu-bortxaketa), bortxaketa-mehatxua, sexu-jazarpena, bortxazko kontrazepzioa, bortxazko

10 Mundu osoan gertatzen diren amen heriotzen erdia baino gehiago (% 61) krisi humanitarioko egoeretan edo inguru hauskorretan –gatazka armatuak, kasu– gertatzen dira. Guztizko tasa globalaren aldean, amaren heriotza-tasa hori 1,9 aldiz handiagoa da (UNFPA, 2015).

11 “Hau da, pertsonak seme-alabak izan nahi dituzten ala ez eta zer unetan erabakitzeko duten gaitasuna, bai eta sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko informazioa eta zerbitzuetara iristeko eskubidea: kontrazepzioa, abortu segurua edo ginekologia eta obstetria zerbitzuak” (Centro de Derechos Reproductivos, 2020: 7).

haurdunaldia, bortxazko abortua, pertsonen salerosketa sexu-esplotaziorako, sexu-esklabotza, sexu-ekintzak ikustera behartzea, haurdunaldian zehar torturak jasanaraztea, bortxazko amatasun edo hazkuntza, bortxaz biluzaraztea, sexu-organoen mutilazioa edo genero-performatibitatean bortxazko aldaketak eragitea” (Kolonbiako Egiaren Batzordea, 2020: 81-82).

Indarkeria armatuko testuinguruetako sexu- eta ugalketa-osasunaren azterketan elementu garrantzitsua da bereizketa egitea emakume borrokalarien –amatasunaren eta kontrazepzioaren zama estereotipatua bizi dutenak– eta emakume zibilen beharizanen artean (Rodríguez Peña, 2020: 25). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da politika publiko gehienak emakume zisgenero, heterosexual eta ugaltze-adinean daudenak artatzeko diseinatuta daudela eta, ondorioz, emakume eta pertsona ez-normatiboen esperientziak baztertu egiten dira eta haien urgazpen- eta babes-beharrikanak homogeneizatu egiten dituzte (Heidari et al., 2019).

Armak erabiltzea EESKien hainbat urraketarekin lotuta dago; behartutako huste masiboak, herri indigenen lurerrako eskubideak ukatzea, pertsonak lanera indarrez behartzea EESKien eta LGBTI kolektiboaren eskubideen defendatzaileen kontrako errepresioa, langileen eta oinarrizko azpiegituren kontrako neurrigabeko eraso armatuak, edo uztak edo bestelako bizi-baliabideak suntsitzea. Historian zehar argi geratu da armek boterea adierazten dutela maskulinitatearen ulertze hegemoniko batetik (Women’s International League for Peace and Freedom, 2020: 7). “Armak, haien jatorria zeinahi dela, gizonen kontrolpean daude ia beti. [...] Arma bat edukitze hutsak emakumeek ez duten halako botere bat ematen die gizonei” (San Pedro, 2019: 21). 2014. urteaz geroztik indarrean dagoen Armen Salerosketari buruzko Nazioarteko Ituna “nazioarteko armen salerosketaren eta genero-indarkeriaren arteko loturak aintzat hartzen dituen lehenengo ituna da” (*ibid.*: 6), eta bertako 7.4 artikuluan jasotzen da ohiko armak eta munizioak esportatzen dituzten estatuek nahitaez aztertu behar dutela zenbaterainoko arriskua dagoen arma horiek genero-zioko indarkeria-ekintzak eragiteko edo errazteko erabiliak izan daitezten.

3. EESKIak gatazka armatuetan eta bestelako gatazka egoeratan

3.1. Gatazka armatuaren existentzia juridikoki zehazteko nozio orokorrak

Gatazka armatua badela zehazteko irizpideak nazioarteko zigor-auzitegien jurisprudentziak garatu ditu batik bat. Antzinako Jugoslaviako Nazioarteko Zigor Auzitegiak (TPIY) ondorioztatu zuen gatazka armatua honako kasu honetan dela: “Estatuen artean indarra erabiltzea erabakitzen denean edo gobernu-agintarien eta talde armatu antolatuen artean edo talde horien artean estatuaren barruan indarkeria armatua dagoenean luzarozan” (*Prosecutor v. Dusko Tadić*, 1995, par. 70).

Gatazka armatuen artean bi mota bereizten dira: nazioartekoak eta ez-nazioartekoak. Nazioarteko gatazka armatuak bi estatu edo gehiagoren arteko indar armatuen arteko borrorak direnean esaten da. Gatazkaren kategoria horri aplikatu dakiokkeen marko juridikoak honako hau hartzen du: Hagako Konbentzioa, lurreko gerrari buruzko lege eta ohituren gainekoa (1907); Genevako lau Hitzarmenak (GH), 1949koak¹²; Genevako Hitzarmenen I. Protokolo Gehigarria (I PG), nazioarteko gatazka armatuetako biktimen babesari buruzkoa (1977); eta Ohitura Zuzenbidea¹³. 2019an, nazioarteko bi gatazka besterik ez ziren izan: Mendebaldeko Sahel Eskualdean bat, eta Israel-Palestinan bestea (Escola de Cultura de Pau, 2020: 9).

12 Honako hauek dira: I. Hitzarmena, kanpainan dauden indar armatuen zauritu eta gaixoei buruzkoa; II. Hitzarmena, itsasoko indar armatuen zauritu, gaixo eta itsasoan galdutakoei buruzkoa; III. Hitzarmena, gerra-presoei eman beharreko tratuari buruzkoa; eta IV. Hitzarmena, gerra garaian pertsona zibilei eman beharreko babesari buruzkoa. 2. artikulua berbera da Genevako lau Hitzarmenetan, eta honako hau xedatzen da bertan: “Bake garaian indarrean jarri behar diren xedapenez gain, Hitzarmen hau aplikatuko da bi alderdi kontratugile gorenen artean edo zenbaiten artean sor daitekeen gerra adierazpenaren kasuan edo bestelako gatazka armaturen kasuan, alderdietako batek gerra egoera aitortu ez badu ere. Era berean, Hitzarmena aplikatuko da alderdi kontratugile goren baten lurraldea osotasunean edo zati batean okupatzen denean, okupazio horrek erresistentzia militarrik izan ez arren”.

13 Ohiturazko arauak nazioarteko betebeharrak dira, eta gatazkako alderdi guztientzat lotesleak diren ezarritako jardunbideetatik ondorioztatzen dira, haietara nahitaez atxiki behar izan gabe. Gai honi buruz, ikusi: Henckaerts eta Doswald-Beck (2007).

Barneko gatazka armatuak edo gatazka armatu ez-nazioartekoak dira estatuko agintarien eta talde armatu antolatuen arteko luzaroko gatazkek edo estatu bateko talde armatu antolatuen artekoak. Luzaroko indarkeria dela kasuz kasu ebaluatu behar da, eta bi irizpide kontuan hartuta: (i) intentsitate maila eta (ii) gatazkan dauden taldeen gutxieneko antolaketa maila (*Prosecutor v Tadić. Case N° IT-94-I-T. Judgment Trial Chamber, 1997, par. 561-568*). Kategoria honetan aplikatu daitekeen oinarritzko marko juridikoak ez du eragiten gatazkan dauden alderdien estatutu juridikoan eta honako hau hartzen du: lau GHetan komuna den 3. Artikulua, errespetatu beharreko gutxieneko betebeharrak zehazten dituena; GHen II Protokolo Gehigarria (II PG) nazioarteko izaera ez duten gatazka armatuetako biktimen babesari buruzkoa (1977); eta Ohitura Zuzenbidea.

Nazioartekotutako gatazka armatuak estatu batek edo gehiagok militarki esku hartzen duen barne gatazka dira; baina estatu batek baino gehiagok esku hartu arren, gatazkaren muina barnekoa izaten jarraitzen du. Esku-hartze hori izan daiteke gatazkaren alderdietako bati entrenamendua, ekipamendua edo inteligentzia militarra hornitzea edo borroketan parte hartzea, bai zuzenean, bai tokiko eragileen bidez (The International Institute for Strategic Studies, 2020: 9). 2019an barneko gatazka armatuen lau kasu izan ziren (% 12), eta horietatik % 82 gatazka armatu internazionalizatuak dira (Escola de Cultura de Pau, 2020: 9).

Azkeneko hiru hamarkadatan, gatazka armatuko egoeren ezaugarriak eta izaera guztiz aldatu dira. Gaur egun, desadostasunak agertzen dira hainbat gatazka armatu sailkatzeko orduan; lehendik deskribaturik dauden kategoriatan sartu ezin diren indarkeria armatuko jokaleku berriak agertzen direlako, eta horrek, lege-hutsuneak eragiten ditu aplikatu beharreko araubide juridikoari dagokionez¹⁴. Sailkapenak irizpide politikoekin lotuta ere egoten dira, tartean dauden alderdiak ahalegindu egiten baitira gertaerak euren

14 Indarkeria-testuinguruen dibertsitateak erronkak planteatzen ditu giza eskubideei buruzko arauak betetzeerakoan. Esaterako, Mexiko eta Erdialdeko Amerikako Iparreko Triangeluko “drogen kontrako gerrak” babes-erronka berriak eragiten ditu, eta NZH eta GENZen aplikazioan eremu ilunak eragiten ditu. Horren ildoan, ikusi honako hau: Balcázar Moreno *et al.* (2018). Beste adibide batzuk dira Gazako Zerrendako egoera; lurralde horretan presentzia militarrik gabeko lurralde-kontrola eragiten baita; edo 2017az geroztik Yemenek bizi duen gatazka: iparrean Saudi Arabia buru duten indarrak Houthi matxinoen kontra; eta hegoan, Yemen eta Al-Qaeda artean Arabiar penintsulan (Bellal, 2018, 18-19). Gai honen inguruan, Katanga kasuan (*Prosecutor vs. Germain Katanga*) Zk. ICC-01/04-01/07 Nazioarteko Zigor Auzitegiak babesten duen gatazken fragmentazioari buruzko teoria ere aztertzea iradokitzen da, eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Giza Eskubideei buruzko Genevako Akademiaren webgunea, egungo gatazken sailkapen-mapa jasotzen duena: <http://www.rulac.org/browse/map>.

interesen arabera interpretatzen. Horrela, bada, diskrezionalitate-marjinak eragin dezake, esaterako, estatuek gatazka armatu batean nahasita daudela onartzeari uko egitea: horrela indarkeriaren intentsitatea gutxien dute, indar militarrekin¹⁵ batera ordena publiko eta herritarren segurtasunarekin loturiko xedapenak aplikatu ahal izateko eta ez Nazioarteko Zuzenbide Humanitariokoak (Vité, 2009: 94).

Gatazka armatuko egoeretan aplikagarri diren arauen gaineko ezjakintasuna –bereziki pertsonen babesari dagozkien arauen gainekoa– argitzen joan da oso estu lotuta dauden bi faktoreri esker: lehenik eta behin, pertsonen babesari dagokionez, barneko eta nazioarteko gatazkek barneratu direlako, barneko gatazketan aplikagarri diren Ohitura Zuzenbide Humanitarioko arauak identifikatuz (CICR, 2015). Eta bigarrenik, gatazka armatuetan Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbideko arauak gero eta gehiago erabili direlako (Oberleitner, 2015: 207). Azken horrek garrantzi handia du, giza eskubideei buruzko arauak garapen zabalagoa dutelako eta pertsonen babes-eremua indartzen dutelako Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren legehutsuneen aurrean.

3.2. EESKIen indarraldia gatazka armatuetan

Oro har, denak bat datoz giza eskubideei buruzko arauak, eta, oro har Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbidearen araubideak, indarrean jarraitzen dutela gatazka armatuko egoeratan eta indar handiko gatazkek dauden antzeko testuinguruetan.

EESKNIK ez du indargabetzeko klausularik, eta gauza bera gertatzen da nazioarteko beste itunekin ere¹⁶. Gai horri buruzko doktrinari jarraikiz, halako xedapenik ez egotean, haiek indargabetzerik ez dagoela interpretatzen da (Schmid, 2016: 59). Giza eskubideen nazioarteko markoarekin bat, halako egoerak ez dira aitzakia errespetu, babes eta

15 Brasilen gertatzen den bezala, indar militar eta polizialen artean “segurtasun-operatibo” bateratuak egin baitituzte. *International Institute of Strategic Studies* arabera, 2019an, Rio de Janeiron halako indarkeria-atalasera iritsi ziren ezen bertako egoera barneko gatazka armatu gisa tipifika zitekeen. (International Institute for Strategic Studies, 2020: 9, 40-50).

16 Emakumearen kontrako diskriminazio modu guztiak desagerrarazteko konbentzioa (CEDAW), Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, Arraza-diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko Konbentzioa eta Langile guztien eta haien familien eskubideak babesteari buruzko Konbentzioa.

bermerako betebeharrak ez betetzeko (Mottershaw, 2008: 450-451). Irizpide hori ondorioztatzen da organo judizialek egindako aipamenetatik ere (Schmid, 2016: 170). Horren ildoan, Nazioarteko Justizia Auzitegiak behin eta berriz adierazi izan du giza eskubideek, EESKNI kasu, indarrean jarraitzen dutela gatazka armatuetan ere¹⁷.

Nazio Batuen Nazioarteko Zuzenbide Batzordeak (2011, XI. kapitulua) aztertu egin zuen gatazka armatuek itunetan zuten eragina, eta ondorio honetara iritsi zen¹⁸

- Gatazka armatua egoteak ez du eragiten itunak berehala desagerraraztea, ez eta haien aplikazioa eten beharra ere (3. artikulua).
- Itunak berak gatazka armatuetan nola aplikatu behar den azaltzeko xedapenak jasotzen dituenen, xedapen horiek aplikatuko dira (4. artikulua).
- Giza eskubideak eta ingurumena babesteko itunak, eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari (NZH) dagozkion itunak osorik edo zati batean aplikatzen jarraitu behar da gatazka armatuetan ere (7. artikulua).

Batzordeak berak, Gatazka armatuetan Ingurumena Babesteari buruzko Printzipioen Proiektuaren testua onartu zuen 2019an: “ingurumena [...] errespetatu eta babestu egingo da aplikagarria den nazioarteko zuzenbideari jarraikiz, eta, bereziki, gatazka armatuei dagokienez” (13. Printzipioa). Aplikagarria den Nazioarteko Zuzenbidea da “ingurumena babesteari buruzko nazioarteko zuzenbideko arauak: ingurumenerako nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, kasu” (Nazioarteko Zuzenbideko Batzordea, 2019: 276).

Beraz, argi dago EESKIak eta haien legezko babesa ezin direla eten gatazka armatua denean edo larrialdi publikoko egoeratan; mugatu egin

17 Ikusi, esaterako: Mehatxuaren Lizentziari edo Arma Nuklearren Erabilpenari buruzko Aholku-iritzia, 1996, par. 25; Palestinako Lurralde Okupatuetan Harresia Eraikitzearen Lege-ondorioei buruzko Aholku-iritzia 2004, par. 106 eta hurr.; eta *Kongoko Lurraldeko Jarduera Armatuei buruzko Kasua (Kongoko Errepublika Demokratikoa vs. Uganda)* (2005: 220).

18 Nazioarteko Zuzenbiderako Erakundeak 1985eko gatazka armatuek hitzarmenetan zuten eraginari buruz emandako Ezarpenean ezarritako irizpide berari jarraitzen dio Nazio Batuetako Nazioarteko Zuzenbiderako Batzordeak. Ikusi: https://www.idi-iil.org/app/uploads/2017/06/1985_hel_03_en.pdf.

daitezke proportzionaltasun, ez-diskriminazio eta premia printzipioetan oinarrituriko neurriak hartuta, baina horrek ezin dio funtsari edo eskubide bakoitzaren oinarritzko maila –gutxienez– aseko dela bermatzeko gutxieneko betebeharrari (EESK batzordea, 1991, par. 10). Horri dagokionez, EESKNik honako hau xedatzen du¹⁹:

“Itun honetan parte hartzen duen estatuetako bakoitzak konpromisoa hartzen du, bai bakarka bai nazioartearen laguntza eta lankidetzaren bidez, neurri ekonomiko eta teknikoak hartzeko erabilgarri dituen baliabideen gehienekora iristeraino, apurka-apurka eta baliabide egoki guztien bidez, bai eta legezko neurriak hartzeko ere, hemen jasotzen diren eskubide guztiak erabat erabilgarriak izan daitezen” (2.1. artikulua).

“Itun honetan parte hartzen duten estatuak konpromisoa hartzen dute bertan jasotzen diren eskubideen erabilgarritasuna bermatzeko, inolako diskriminaziorik eragin gabe ez arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako, jatorri nazional edo sozial, posizio ekonomiko, jaiotza edo beste edozein egoera sozialengatik” (2.2. artikulua).

“Itun honetan parte hartzen duten estatuak aitortzen dute, estatuak itun honen arabera bermatu behar dituen eskubideak egikaritzeko, estatuak eskubide horiei legeak xedatutako mugak soilik ezarri ahal izango dizkiola, eskubide horien izaerarekin eta gizarte demokratiko baten ongizate orokorra sustatzeko helburu bakarrarekin bateragarria denean soilik” (4. artikulua).

Argudio-ildo berari jarraitu zion CEDAW Batzordeak, CEDAWen irismenari eta indarraldiari buruz 2010etan eta 2013an emandako bi gomendio orokorretan:

“Itunaren parte diren estaturen betebeharrak ez dira eteten gatazka armatuko aldietan ez eta gertaera politikoen edo hondamendi naturalen ondorioz adierazitako larrialdi egoeretan ere. Egoera horiek eragin eta ondorio garrantzitsuak dituzte emakumeek oinarritzko eskubideak gozatzeko eta baliatzeko gizonekiko berdintasunean. Parte diren estatuak estrategiak eta neurriak adostu beharko dituzte gatazka armatuko edo larrialdi egoeratan emakumeen beharrianak asetzeko” (CEDAW Batzordea, 2010, par. 11).

19 Ikusi baita ere Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 4. artikulua (PIDCP).

“Gomendio orokor horrek barnean hartzen du Konbentzioa gatazken prebentzioan, nazioarteko eta ez-nazioarteko gatazka armatuetan, atzerritarren okupazio-egoeratan eta bestelako okupazio moduetan, bai eta gatazkaren ondoren fasean ere aplikatzea. Gainera, bestelako egoera kezkarri batzuei ere heltzen die gomendioak, hala nola, barneko asaldura, borroka zibil luze eta intentsitate txikikoa, indarkeria etnikoa eta komunitarioa, larrialdi egoerak eta altxamendu masiboen errepresioa, terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuaren kontrako gerra; agian, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arabera gatazka armatu gisa sailkatuta jasotzen ez direnak baina emakumeen eskubideen urratze larriak eragiten dituztenak, eta Batzordea bereziki kezkatzen dutenak” (CEDAW Batzordea, 2013, par. 4).

“Emakume gehienen kasuan, gatazkaren ondorengo lehentasun judizialak ez dira eskubide zibil eta politikoen urraketa amaiazterta soilik mugatuko; haatik, eskubide guztien urraketa hartu behar dute kontuan, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak barne” (CEDAW Batzordea, 2013, par.76).

4. EESKIak babesteko nazioarteko tresnak eta giza eskubideen aldeko erakundeen aipamenak

Gatazka armatuetan edo antzeko egoeretan pertsoneri ematen zaien tratua Nazioarteko Zuzenbide Publikoko hainbat nazioarteko araubidetan jasotzen da, eta elkarren artean eragiten duten arren, haien iturriak, helburua, aplikagarritasuna eta edukia desberdinak dira. Gaiari buruzko araubide nagusiak, duintasuna, bizitza eta osasuna babesteko eta diskriminazioa eta tortura edo tratu txarrak debekatzeko helburuak partekatzen dituztenak, honako hauek dira: nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea, Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazioarteko Zigor Zuzenbidea.

EESKIen nazioarteko babeserako arauak gorputz juridikoa (*corpus iuris*) osatzen dute, eta askotariko eduki eta eragin juridikoko nazioarteko hainbat tresna jasotzen ditu: itunak, hitzarmenak, adierazpenak eta ebazpenak. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH) eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea (GENZ) EESKIen ardatza diren heinean, aurrerago aipatuko dira zehatzago eskubide horien oinarritzko marko juridikoa adierazten eta ematen duten bi araubide horien tresna nagusiak²⁰.

4.1. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZK), gatazka armatuetako zuzenbidea edo gerrako zuzenbidea (*ius in bello*) izenez ere ezaguna, arrazoi humanitarioak direla eta, gatazka armatuen ondorioak mugatzen ahalegintzen den Zuzenbidearen adarra da. Xede dauka gatazka armatu bat

20 Atal honetan jaso diren tresnak ez dira zerrenda zehatza, gida izan daitezkeen xedapen argigarrien multzoa baizik, eta inola ere ez dute mugatu nahi EESKIen babes-eremua.

bizi duten pertsonak babestea eta ekintza belikoak (metodoak, bitartekoak, borrokaren helburuak) mugatzea: “NZHren helburua da gatazka armatuen biktimak babestea eta borroka arautzea premia militarren eta humanitate-arrazoien arteko orekan oinarrituta” (Melzer, 2019: 17-18). “NZHk [...] ez ditu gatazka armatuak ez debekatzeko ez baimentzeko; aldiz, gertatzen direnean haiek humanizatzeko eta haren ondorioak behar-beharrezkora mugatzeko helburua du” (Simon, s.f.: 7). Gatazkaren alderdiek, une oro bereizi behar dute populazio zibilaren eta borrokalarien artean, eta populazio zibila eta izaera zibileko ondasunak babestu behar dituzte (Verri, 2008: 33)²¹.

Pertsonak eta EESKIRi loturiko izaera zibileko ondasun garrantzitsuenak babesteko NZHk dituen tresna nagusiak honako hauek dira:

- Bereizi gabeko erasoak debekua I PGren 5.4 artikuluan eta GKaren 52.1 artikuluan xedatzen dira, hurrenez hurren. I PGren 85.3 artikularekin lotuta, aipatutako erasoek heriotza eragiten dutenean edo babestutako pertsonen osotasun fisikoa eta osasuna larri kaltetzen dutenean, NZHren urratze larritzat hartuko da.
- Borroketan parte hartzen duten pertsonen alderdi guztiek giza tratua emateko betebeharrak lau GKetako 3. artikuluan jasotzen da, II PGren 13.2 artikuluri lotuta. Giza tratuari buruz, ICRCk interpretatu du lotura zuzena duela egoeraren sekzioarteko- eta genero-azterketarekin²²:

“[T]estu inguruaren arabera da, eta kasu bakoitzaren inguruabar guztiak hartu behar dira kontuan, elementu objektiboak zein subjektiboak; hala nola, ingurua, pertsonaren egoera mental eta fisikoa, adina eta aurrekari sozialak, kulturalak, erlijiosoak edo politikoak eta iraganeko esperientziak. Beste alde batetik, gero eta onartuago dago emakumeei,

21 NZH bereziki formulatua izan da gatazka armatua dagoenean eta hori hasita dagoenean artezteko: “gatazka horrekin loturiko arrazoiengatik gauzatu den ekintza orok errespetatu beharko du NZH. “Aldiz, NZH ez da aplikatzen gatazka armatu izatera iristen ez diren estatuen arteko borroketan ez barneko tentsio-egoeretan ez liskarretan, hala nola matxinadak, noizbehinkako indarkeria-ekintza isolatuak eta antzeko beste ekintzetan, gatazka armatu ez badira” (Melzer, 2019: 56). NZHren aplikazioa jarduerak eten ondoren ere luzatzen da, amaierako bake akordioak iritsi arte (*Prosecutor v Dusko Tadić ('Dule')*, *Case N° IT-94-I. Appeals Chamber, Decision on the Defence Motion for Interlocutory Appeal on Jurisdiction*, 1995: 70). “Irizpide erabakigarriak beti izan behar du borrokan ari diren alderdien arteko liskar armatuak amaiera iraunkorra izatea; hau da, operazio militarren amaiera gisa interpreta daitekeen egoeretan” (Melzer, 2019: 63).

22 Gai hau gehiago garatzeko, honako hau gomendatzen dugu: Margalit (2018).

4. EESKIak babesteko nazioarteko tresnak eta giza eskubideen aldeko erakundeen aipamenak

gizonei, neskei eta mutilei oso modu desberdinean eragiten dietela gatazka armatuek. “Pertsona bakoitzari datxezkion egoera, gaitasun eta beharrizanekiko sentiberatasunak –gizarteko egitura sozial, ekonomiko, kultural eta politikoen ondorioz gizon eta emakumeengan nola aldatzen diren ikusita– 3. artikuluko komunean jasotzen den giza tratua nozioa ulertzen laguntzen du” (Cameron et al., 2019, par. 553).

- Laugarren GKren 14, 16, 21 eta 22. artikuluek emakumeen eta 7 urtetik beherako haurren amen osasunerako eskubidea indartzen dute. 134. Ohiturazko arauak adierazten du errespetatu egin behar direla gatazka armatuak bizi dituzten emakumeen beharrizan espezifikokoak babesari, osasunari eta urgazpenari dagokienez.
- Hirugarren GKn, emakumeen babesari buruzko xedapenek aipatzen dute identifikatu egin behar direla bai izaera fisiko bai izaera fisiologikoko beharrizanak, eta, halaber, gizartearen egitura sozial, ekonomiko, kultural eta politikotatik ondorioztatuak. Aintzat hartzen dira sexu-indarkeria, haurdunaldian edo edoskitzaroan emakumearen osasun fisikorako dauden arriskuak eta arreta medikorako irispide seguruan dauden aldeak.
- Hala ere, hasierako erredakzioa ez dator bat gaiari buruzko egungo estandarrekin; esaterako, sexu-indarkeriaren debekua emakumearen ohorearen kontrako eraso eta familiaren eskubideen urratze bezala interpretatzen da, eta ez giza osotasun eta duintasunaren kontrako indarkeria gisa. Hori dela eta, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak adierazten du genero-azterketa bat egin behar dela egoera horietan, jardun eta araudi eguneratuen arabera (CICR, 2020).
- I PGren 54. Artikulua dio “debekatuta dago populazio zibilaren bizi iraupenerako ezinbestekoak diren ondasunei eraso egitea, haien suntsitzea, lapurtzea edo erabilezin bihurtzea [...] bizirik irautea bermatzeko bitarteko gisa duten balioagatik, populazio zibila edo kontrako aldeari ondasun horiek ukatzeko asmoarekin, arrazoia edozein dela, bai pertsona zibilei gosea pasarazteko, haien desplazamendua eragiteko, edo beste edozein asmorekin”.
- Laugarren GKren III sekzioan, lurralde okupatuetan aplikagarria den araubidea jasotzen da, eta, hein handi batean, EESKIak errespetatzera eta bermatzera behartzen du. Horren ildoan, Aolainek (2020: 342) dio NZHn, okupazio-arauak lurralde okupatuetako biztanleak infantilizatzen eta babesten dituzten premisez beteta daudela, eta indartu egiten dituztela ordena koloniala eta patriarkala.

- Ondasun kulturalen eta ingurumenaren kontrako errepresaliak debekatuta daude 52.1 eta 53.a artikuluetan (herrien ondare kultural edo espirituala osatzen duten monumentu historikoak, artelanak edo kultu-lekuak), eta 54.4 eta 55.2 artikuluetan eta 147 ohiturazko arauan.
- Ondasun kulturalen babesa Gatazka Armatuen kasuetan Ondasun Kulturalak Babesteko Konbentzioa eta berori aplikatzeko Araudian (1954) eta horri buruzko bi Protokoloak (1954 eta 1999).
- Ondare kulturala nahita suntsitzeari buruzko UNESCOren adierazpena (2003).
- Ingurumena moldatzeko teknikak xede militarrekin edo bestelako helburu maltzurrekin erabiltzeari buruzko konbentzioa (1976).
- Zenbait arma mota erabiltzeko debekuari eta murrizketei buruzko itun eta protokoloak; hala nola, su-armak erabiltzeko debekuari edo murrizketei buruzko Protokoloa (1980).

4.2. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea (GENZ) pertsonen –Nazioarteko Zuzenbidearen subjektu diren aldetik– datzekien eskubideei lege-izaera ematen dioten eta estatuei betebeharrak ezartzen dizkien arau multzoa da. Haren xedea da “[...] giza eskubideak sustatzea eta babestea” (Castañeda, 2015: 26-27). Berretsi diren giza eskubideei buruzko tratatuek estatuak lotzen dituzte eta bere gain hartu behar dituzten betebeharrak –positiboak eta negatiboak– sortzen dituzte²³.

GENZ gatazka armatuen testuinguruetan aplikatzeak NZHrekin bat egitea eta harekiko arazoak eragin ditu. Bi araubideen oinarria pertsonen duintasun-printzipioa den arren, haien aplikazio-eremuan –zenbait kasutan– ez dute babes bera eskaintzen eta, gainera, talka egiten dute eta kontraesanezko konponbideak eskaintzen dituzte. Arau orokorrak xedatzen duenaren

23 Halako hitzarmenek nolabaiteko izaera objektiboa dute, estatuen eta norbanakoen arteko harreman juridikoak arautzen baitituzte, elkarrekiko betebeharrak ezaren logikarekin. Hau da, pertsonak eta ondasun komunak babesteko sortu dira, eta ez estatuen interes indibidualak babesteko (*Radilla Pacheco vs. México kasua. Aurretiazko salbuespenak. Funtsean, Erreparazioak eta Kostak. 2009ko azaroaren 23ko Epaia. Serie C No. 209, par. 302*). Horiek berrestea estatu batek bere burua hitzarmen baten bidez behartzeko adostasuna adierazten du; estatu batek hitzarmen bat nazioarteko mailan berretsi badu, bere barneko legeriari atxiki behar dio.

arabera, NHZ eta GENZ aldi berean eta egoera berean aplikatzen badira, baten zein bestearen xedapenak ez dira kontrajartzen: “Eremu juridikoko bi markoak osagarriak dira, eta ez baztergarriak” (Giza Eskubideen Batzordea, 2004, par. 11)²⁴.

EESKIak GENZek onartzen eta babesten ditu batez ere, giza eskubideei buruzko nazioarteko tresna guztiak haien alderdi batzuk babesten dituzten heinean. Giza Eskubideen Sistema Unibertsalaren (NBE) eta Eskualdeetako Sistemaren (Amerika, Afrika eta Europa) kasuan, haien tresnek ahalbidetu dute, zuzenean edo zeharka, EESKIen justiziagarritasuna. Jarraian jaso dira tresna horiek, eta lehentasuna eman zaie Nazioarteko Zuzenbidearen iturri nagusi diren itunei:

1. taula. Giza eskubideei buruzko nazioarteko itun nagusiak	
Eremua	Tresna
Globala	<ul style="list-style-type: none"> • Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. • Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna. • Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko konbentzioa (CEDAW). • Arraza-diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko konbentzioa. • Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo laidogarrien kontrako konbentzioa. • Haurren Eskubideei eta gatazka armatuetan haurrak parte hartzeari buruzko hautazko protokoloari buruzko konbentzioa. • Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioa. • Irakaskuntza alorrean diskriminazioak desagerrarazteko borrokari buruzko konbentzioa. • Behartutako lanari buruzko 29. Hitzarmena eta horri buruzko 2014ko Protokoloa. • Behartutako Lana desagerrarazteko 105. Hitzarmena. • Diskriminazioari (enplegua eta okupazioa) buruzko 111. Hitzarmena. • Herri indigenei eta tribuei buruzko 169. Hitzarmena. • Haurren lan-modu txarrenei buruzko 182. Hitzarmena.

24 Horretarako, interpretazio-irizpideak ezarri dira; hala nola, lege bereziaren printzipioa (*lex specialis*), zeinak ezartzen duen egoera berezi baterako berariaz sortu den arau bat haren kontrakoa eta orokorragoa (*lex generalis*) den beste baten gainetik dagoela (Melzer, 2019: 31). Zuzenbidean onartuta dauden interpretazio-mekanismoak ere erabilgarriak dira; hala nola, araurik mesedegarriena aplikatzearen printzipioa eta interpretazio adostuaren printzipioa (Oberleitner, 2015: 118-119). NZHren eremuan dago Martens klausula, zeinak nazioarteko akordio zehatzek (ohiko zuzenbidea) jasotzen ez dituzten kasuetarako babesa ezartzen duen.

Eremua	Tresna
Amerika	<ul style="list-style-type: none"> ◦ Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa. ◦ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen inguruko Amerikako Konbentzioaren Protokolo Gehigarria. ◦ Emakumearen kontrako indarkeria prebenitzeko, zigortzeko eta desagerrarazteko konbentzio interamerikarra (Convención Belem do Pará). ◦ Diskriminazio eta Intolerantzia modu ororen kontrako Konbentzio Interamerikarra.
Afrika	<ul style="list-style-type: none"> ◦ Giza eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna. ◦ Giza eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunaren protokoloa Afrikako Emakumeen Eskubideei buruz (Maputoko Protokoloa edo Afrikako Emakumeen Protokoloa).
Europa	<ul style="list-style-type: none"> ◦ Europako Gutun Soziala. ◦ Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmena.

Iturria: Norberak egina.

Nazio Batuetako eta eskualdeetako sistemetako organoek –monitorizatzeko eta segimendua egiteko haien arduren arabera– hitz egin dute EESKiek gatazka armatuetan duten eraginkortasunari buruz. Ondoren, landutako gaiari buruzko hainbat ebazpen, gomendio eta txosten jasoko ditugu labur.

4.2.1. Nazio Batuetako itunen organoak

a) EESK batzordea

EESKNI betetzen dela jagoteko ardura duen organoa da. Batzorde honetan, honako ohar orokor hauek dira aipagarriak, estatuen betebeharrak nagusiak lantzen dituztenak:

- 23. gomendio orokorra lan-baldintza bidezko eta asegarrietarako eskubideari buruzkoa. Horren arabera, gatazka edo gatazka ondoko egoeratan, estatuek “[...] zeregin garrantzitsua dute arauak ematen eta legea betearazten, pertsoneri eta enpresei euren operazioek lan-baldintza bidezko eta asegarriak ezartzeko eragin ditzaketan arriskuak zehazten, prebenitzen eta arintzen laguntzeko”. Gainera, “parte diren estatuek neurri egokiak hartu beharko dituzte parte den estatuan dauden baina estatukoak ez diren eragileak lan-baldintza zuzen eta asegarrietarako eskubidearen

urraketen lurraldez kanpoko arduraduntzat hartuko direla eta biktimek erreparazioa jasoko dutela bermatzeko. Estatuak orientazioa eman beharko liekete enplegataleei eta enpresei ere, zuzenbidea lurraldez kanpo nola errespetatu jakin dezaten” (EESK Batzordea 2016, par. 70).

- 22. gomendioa, sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubideari buruzkoa. Horren arabera, emakumeen sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea ezinbestekoa da haien autonomiarako eta euren bizitzari eta osasunari buruzko erabaki garrantzitsuak hartzeko eskubiderako. Diskriminaziorik ezaren printzipioa eremu horretan aplikatzeko sekzioarteko diskriminazioaren ondorioak eduki behar dira kontuan eta “pertsonek, lesbianek, gaiek, bisexualak, transgeneroak eta intersexualek barne, beren sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo intersexualitateagatik erabat errespetatuak izateko eskubidea hartzen du barnean”. Era berean, xedatzen da “parte diren estatuak ere homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko betebeharra dutela, diskriminazioa eragiten dutelako, sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidearen urraketa barne” (EESK Batzordea, 2006, par. 23, 25 eta 30).
- Azkenik, adierazten du babes-betebeharra urratzen dela “Estatu batek hirugarrenek sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea erabiltzea eragozteko neurri eraginkorrik hartzen ez duenean. Barnean hartzen du partikularrek eta erakunde pribatuek eragindako indarkeria mota guztiak ez debekatzea eta haiek prebenitzeko neurririk ez hartzea; hala nola, etxeko indarkeria, bortxaketa (senar-emazteen artekoa barne), sexu-erasoak, abusuak eta jazarpena, eta bereziki gatazka egoeratan, gatazka osteko egoeratan edo trantsizio egoeratan; pertsona lesbianen, gaien, bisexualen, transgeneroen eta intersexualen edo abortu kasuetan edo abortatu ostean laguntza jaso nahi duten emakumeen kontrako indarkeria; jardunbide kaltegarriak, emakumeen genitalen mutilazioa, haurren ezkontzak eta behartutako ezkontzak, behartutako esterilizazioa, behartutako abortua eta behartutako haurdunaldia; eta haur intersexualei eragindako kirurgia eta mediku-tratamendu ez-beharrezkoak, atzera itzulerarik ez dutenak eta euren borondatearen kontrakoak” (EESK Batzordea, 2006, par. 59).
- 20. Gomendio Orokorra, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen kasuan diskriminaziorik-ezari dagokiona, zeinetan Batzordeak azpimarratu egiten duen diskriminazio-debekuaren berehalako izaera eta irismen orokorra, 16. Gomendio Orokorren (Eskubide-berdintasuna) ildoari jarraikiz.
- 21. Gomendio Orokorra, pertsona orok bizimodu kulturean parte hartzeko eskubideari dagokiona, zeinetan adierazten den estatuak

“emakumeak bizimodu kulturallean, hezkuntzan eta ikerketa zientifikoan parte hartzea eragozten duten oztopo instituzional eta juridikoak desagerrarazi behar dituztela, jardunbide negatiboetan oinarritakoekin batera, bai eta ohiturari eta tradizioari egozten zaizkionak ere”. “Kultur ondarea errespetatzeko eta babesteko betebeharra ere badute, modu guztietan, bake-aldian edo gerra-aldian, bai eta hondamendi naturalen aurrean ere”; eta ingurumenari eta garapen ekonomikoari buruzko politiketan eta programetan talde eta komunitate guztien kultur ondarea errespetatzeko eta babestekoa ere, bereziki, pertsona eta talde babesgabe eta marjinatuenak (EESK Batzordea, 2009a, par. 25, 50.a eta 50.b).

- 19. Gomendio Orokorra, gizarte-segurtasunerako eskubideari buruzkoa. Horren arabera, estatuak behartuta daude eskubide hori (ez zeharkako ez zuzeneko) diskriminaziorik gabe bermatzera, eta bertan jasotzen da “laguntzak behar denean eman behar direla, eta onuradunek irispide fisikoa eduki behar dutela gizarte-segurtasunaren zerbitzuetara, laguntzak eta informazioa jasotzeko; bai eta, dagokienean, kotizazioak egiteko ere. Horri dagokionez, arreta berezia eman behar zaie desgaitasunak dituzten pertsoneri, etorkinei eta urruti edo hondamendiak gerta daitezkeen eremuetan bizi diren pertsoneri eta gatazka armatuak dauden tokietan bizi direnei; halako eraz non pertsona horiek guztiek ere zerbitzu horietarako irispidea izan dezaten” (EESK Batzordea, 2007, par. 27 eta 29).
- 18. Gomendio Orokorra, lanerako eskubideari buruzkoa; bertan azpimarratzen da “babes-sistema global bat eduki behar dela, lanerako eskubideari dagokionez, genero-diskriminazioaren kontra borrokatzeko eta gizonen eta emakumeen aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko, balio bereko lanaren truke soldata bera jasoko dela bermatuta. Bereziki, haurdunaldiek ez dute eragozpen izan behar enplegurako, ez eta hura galtzeko arrazoi ere. Azkenik, azpimarratu behar da lotuta daudela hezkuntzarako irispidea emakumeentzat gizonentzat baino txikiagoa izatearen eta emakumeeri enplegurako eta garatzeko aukerak ukatzen dizkieten zenbait kultura tradizional” (EESK Batzordea, 2005, par. 13).
- 15. Gomendio Orokorra, ura izateko eskubideari buruzkoa; estatuak duten errespetu-betebeharrari eta ur-zerbitzu eta instalazio guztiak kalitatekoak, behar bestekoak eta kulturalki egokiak izatearen eta generoari, bizitza-zikloari eta intimitateari buruzko beharrianak kontuan hartzearen garrantziari dagokiona. Estatuak honako hau bete behar dute: “[E] dateko ura berdintasun-baldintzetan eskuratzea ukatzen edo murrizten duen jardunbide edo jarduerarik ez egitea; ura banatzeko ohiturazko edo

tradiziozko sistemetan nahierara ez sartzea; ura legez kontra ez murriztea edo kutsatzea, esaterako estatuarenak diren instalazioetako hondakinekin edo armen erabileraren edo saiakuntzen bidez, eta ura hornitzeko zerbitzu eta azpiegituretarako sarbidea ez mugatzea edo, esaterako, gatazka armatua denean, zigor neurri gisa ez suntsitzea, nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratuz. Batzordea ohartu da gatazka armatuetan, larrialdi egoeratan eta hondamendi naturaletan, ura izateko eskubideak barnean hartzen dituela nazioarteko zuzenbide humanitarioak estatuei ezartzen dizkien betebeharrak. Barnean hartzen dira populazio zibilak bizirik irauteko ezinbesteko dituen objektuen babesa, edateko uraren instalazioak eta erreserbak eta ureztatzeko obrak barne, eta inguru naturala kalte orokor, larri eta epe luzekoetatik babestea, eta zibilek eta presoek edateko ura eskura izango dutela bermatzea (EESK Batzordea, 2002, par. 7, 12.c.i, 16.a, 21-22).

- 14. Gomendio Orokorra, ahalik eta osasun mailarik altuenaz gozatzeko eskubideari buruzkoa; bertan xedatzen da estatuek genero-ikuspegia txertatu behar dutela haien politiketan eta onartu egin behar dituztela emakumeen eta gizonen osasunean eragiten duten faktore biologikoak eta soziokulturalak. Orobat, ez du jardunbide diskriminatzailerik ezarriko emakumeen osasun-egoerari eta beharrizanei dagokienez; [...] ez du osasun-zerbitzuetarako irispidea mugatzea zigor neurri gisa erabiliko, esaterako, gatazka armatuetan; hori nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzea bailitzateke; eta [...] jardunbide sozial edo tradizional kaltegarriek [osasunerako] irispideari ez eragitea zaindu behar dute. [...] Hondamendi kasuetan laguntza ematen lagundu behar dute, banaka nahiz solidarioki, parte diren estatuek, eta laguntza humanitarioa eskaini behar dute larrialdi kasuetan, errefuxiatuei eta herrialde barruko desplazatuei laguntza ematea barne. Estatu bakoitzak bere gaitasunaren maila altueneraino lagundu behar du zeregin horretan” (EESK Batzordea, 2000, par. 11, 20-21, 34-35 eta 40).
- 13. Gomendio Orokorra, hezkuntzarako eskubideari buruzkoa. Horretan azpimarratzen da hezkuntza funtsezkoa dela emakumearen emantzipazioan, lan- eta sexu-esplotazioaren kontrako babesean eta giza eskubideen eta demokraziaren sustapenean. Xedatzen du estatuek desagerrarazi egin behar dituztela sexu-estereotipoak eta emakumeari eta bestelako talde babesgabeiei eskubide horretara iristea eragozten dieten bestelako estereotipoak. “Ez diskriminazioari eta berdintasunari buruzko Ituneko xedapenen testuinguruan, emakumeei, neskei, eskolatu gabeko gazteei, lanik gabeko gazteei, langile etorkinen seme-alabei, desgaitasuna

duten pertsoneri eta bestelako talde babesgabei zuzenduriko irakaskuntza sustatzeko programak gauzatzean datza” (EESK Batzordea, 1999b, par. 1, 16.e eta 55).

- 12. Gomendio Orokorra, elikadura egokirako eskubideari buruzkoa; horrek aipatzen du “elikadurarako eskubidearen urraketak estatuek zuzenean gauzatutako ekintzen bidez edo estatuek behar beste arautzen ez dituzten bestelako erakundeek gauza ditzaketela. Besteak beste: elikadurarako eskubidez gozaten jarraitzeko beharrezko legeria indargabetzea edo ofizialki etenaraztea; zenbait norbanakori edo talderi elikadurarako irispidea ukatzea, diskriminazioa legerian oinarritua izan edo aktiboa izan; izaera humanitarioko elikagaien laguntzarako irispidea ukatzea barneko gatazketan zein bestelako larrialdi egoeretan”. Eta elikagaietarako irispidean edo elikadurara bideraturiko baliabideetarako irispidean diskriminazioa prebenitzeko neurrien artean, honako hauek jasotzen ditu: “baliabide ekonomikoetarako erabateko eta bidezko irizpidea bermatzea, bereziki emakumeei, barnean hartuta jaraunse izateko eskubidea eta lurak edo bestelako ondasunak edukitzeko eskubidea, eta kreditua, baliabide naturalak eta teknologia egokia edukitzeko eskubidea; norberaren konturako lana eta soldatapeko lanak errespetatzeko eta babesteko neurriak, soldatapekoen eta euren familiei bizimodu duina bermatzeko moduan [...]; lurrerako eskubideei buruzko erregistroak edukitzea (basoak barne) (EESK Batzordea, 1999a, par. 19 eta 26).
- 7. Gomendio Orokorra, etxebizitza egokirako eskubideari buruzkoa. Horrek etxegabetzeen gaiari heltzen dio, eta onartzen du “nahitaezko etxegabetze asko indarkeriarekin lotuta daudela; esaterako, nazioarteko gatazka armatuek, barneko liskarrek eta indarkeria komunitarioak edo etnikoak eragindakoak”. Identifikatu egiten du emakumeek eta beste talde diskriminatu batzuk bereziki zaurgarriak direla, eta arrazoi hau aipatzen du: “[...] jabetzarako eskubidean (etxebizitza baten jabetza barne) edo jabetza bat edo etxebizitza bat izateko eskubideari dagokionez gertatzen diren diskriminazio juridikoa eta bestelako diskriminazio modu batzuk, eta etxebizitzarik gabe geratzen direnean, errazago direla sexu-indarkeriaren edo abusuaren biktima” (EESK Batzordea, 1997, par. 6 eta 10).

b) CEDAW Batzordea

CEDAW Konbentzioaren ezarpena gainbegiratzen duen organoa den aldetik, egin dituen ohar orokorretan ezarria du arau humanitarioek gatazkan dauden tokietan emakumeen egoera aztertzeko duten garrantzia.

- 36. Gomendio Orokorra, neskek eta emakumeek hezkuntzarako duten eskubideari buruzkoa. Gomendio horretan, Batzordeak neurri multzo bat ezartzen du, gatazka-egoeren eta hondamendi naturalaren aurrean, estatuek hezkuntzarako eta segurtasunerako irispidean duten eragina ahalik eta txikiena izan dadin (CEDAW Batzordea, 2017b, par. 50).
- 35. Gomendio Orokorra, emakumeen kontrako genero-arrazoiengatiko indarkeriari buruzkoa. Bertan, EESKIak urratzen diren hainbat egoera identifikatzen ditu, faktore soziokulturalek, gatazka armatuek eta bestelako larrialdi-egoerek larriagotu egiten dituztenak: “Desplazamenduak, migrazioak, jarduera ekonomikoen globalizazioaren areagotzeak – bereziki, munduko-hornikuntza kateenak, erauzketa-industriak eta deslokalizazioak–, militarizazioak, atzerritarren okupazioak, gatazka armatuak, estremismo bortitzak eta terrorismoak” (CEDAW Batzordea, 2017a, par. 14).
- 34. Gomendio Orokorra, landa-eremuetako emakumeen eskubideei buruzkoa. Horretan azpimarratzen da estatuek diskriminazio-mota intersektatu guztiak desagerrarazi behar dituztela eta hezkuntzarako, enplegurako, ura eta saneamendurako eta osasun-urgazpenerako irispidea, besteak beste, bermatu behar zaiela landa-eremuetako emakumeei, gutxiengo etnikoetakoei, afrikarren ondorengoei, gutxiengo etniko eta erlijiosoetakoei, nekazarien familiaburu direnei, emakume artzainei, emakume arrantzaleei, lurrik gabeko emakumeei eta gatazka egoeretan bizi diren emakumeei (CEDAW Batzordea, 2016, par. 15).
- 33. Gomendio Orokorra, justiziarako irispideari buruzkoa. Horretan, emakumeek justizia-mekanismoetara iristeko dituzten eragozpenak identifikatzen dira: “[]Analfabetismoa, emakumeen salerosketa, gatazka armatuak, aterpea bilatzea, barneko desplazamenduak, aberrigabezia, migrazioak, etxeetako buru diren emakumeak, alarguntasuna, HIESArekin bizi diren emakumeak, askatasun gabetzea, prostituzioa zigortzea, urruntze geografikoa eta euren eskubideen alde borrokatzen diren emakumeen estigmatizazioa”. Orobat, Batzordeak gomendatzen du gatazka-egoeratan gertatutako sexu-indarkeriako kasu guztiak prebenitzeko, ikertzeko, zigortzeko eta erreparatzeko beharrezko erreforma instituzional guztiak egiteko (CEDAW Batzordea, 2015, par. 9. 18.e eta 56.d).
- 32. Gomendio Orokorra, estatuek emakume errefuxiatuen, asilo-eskatzailen eta aberrigabeen eskubide politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilak errespetatzeko, babesteko eta gauzatzeko dituzten

betebeharrei buruzkoa, kontuan hartuta diskriminaziorik ezaren printzipioa eta berdintasun substantiboa bake-garaian, nazioarteko eta ez-nazioarteko gatazka armatuko egoeretan eta okupazio-egoeretan (CEDAW Batzordea, 2014, par. 4).

- 30. Gomendio Orokorra, emakumeei buruzkoa, gatazken prebentzioan eta gatazka eta gatazka-osteko egoeretan. Batzordeak, indarkeria armatuko egoeretan emakumeen eskubideak babesteko, errespetatzeko eta bermatzeko hartu behar diren neurriak garatzen ditu. Berezi, Batzordeak gomendatzen du hezkuntzarako, enplegurako eta osasunerako eskubideekin loturiko zerbitzuetarako irispidea bermatzeko neurriak hartzea, landa-eremuetako emakumeen egoera berezia kontuan hartuta (CEDAW Batzordea, 2013, par. 48 eta hur.).
- 24. Gomendio Orokorra, emakumeari eta osasunari buruzkoa. Honako hau jasotzen da: “[p]arte diren estatuak jagon egin behar dute, egoera zailtan dauden emakumeek –gatazka egoeran daudenak eta errefuxiatuak, kasu-osasun babes eta zerbitzu nahikoak jaso ditzaten, traumen tratamendua eta beharrezkoa den orientazioa barne” (CEDAW Batzordea, 1999, par. 16).

c) Haurren Eskubideen Batzordea

Organo horrek posizio berezia dauka Hitzarmen propioko xedapenak interpretatzeko eta aztertzeko: hitzarmenak NZHko²⁵ berriazko betebeharrak jasotzen baititu.

- 21. Ohar Orokorra, kaleko haurrei buruzkoa. Bertan, Batzordeak zehazten du prebentzio-neurriak hartu behar direla indar eta talde armatuek neskak eta mutikoak indarrez errekruta ditzaten saihesteko (Haurren Eskubideen Batzordea, 2017, par. 61).
- 20. Ohar Orokorra, haurrak nerabezaroan dituen eskubideei buruzkoa. Honako hau jasotzen du: “Indar eta talde armatuek indarrez errekrutatutako nerabeak berreskuratzeko eta gizarteratzeko, genero-ikuspegiko neurriak bermatu behar dituzte estatuak; migrazio-egoeran dauden nerabeak barne. Halaber, debekatu egin behar dute gatazka guztietan nerabeak errekrutatzea edo erabiltzea, eta neurri horiek talde armatuekiko negoziazioetan eta bake-akordioetan edo su-eten

25 38.1. artikulua: “Parte diren estatuak konpromisoa hartzen dute gatazka armatuetan aplikagarri zaizkien eta haurrentzat egokiak diren nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arauak errespetatzeko eta errespetaratzeko”.

akordioetan txertatu behar dituzte. [...] Batzordeak estatuei eskatzen die neurri irmoak hartzeko nerabeek pairatutako gatazkekin zerikusia duten sexu-indarkeriako kasuak, sexu-esplotazioa eta abusua eta bestelako giza eskubideen urraketa kasu guztiak berehala eta behar bezala ikertuko direla bermatzeko” (Haurren Eskubideen Batzordea, 2016, par. 82).

- 18. Ohar Orokorra, bereziki neskei eragiten dieten jardunbide kaltegarriak buruzkoa²⁶. “Jardunbide kaltegarriak endemikoak dira askotariko komunitateetan, herrialde gehienetan. Jardunbide batzuk, gainera, aurretik inoiz dokumentatu izan ez diren eskualde edo herrialdeetan ere hauteman dira –bereziki migrazioagatik–, eta jardunbide horiek desagertuta zeuden beste herrialde batzuetan, berriz, berriro agertzen hasi dira, batez ere gatazka-egoerak eta antzeko faktoreengatik” (CEDAW Batzordea eta Haurren Eskubideen Batzordea, 2014, par. 8).
- 11. Ohar Orokorra, haur indigenei eta Konbentzioaren arabera haien eskubideei buruzkoa: “Konbentzioaren 38. Artikuluaren arabera, parte diren estatuak zuzenbide humanitarioko arauak errespetatu daitezzen jagon behar dute, eta bermatu egin behar dute gatazka armatuek eragiten dieten haurrak babestu eta zaindu egingo dituztela. Parte diren estatuak bereziki zaindu beharko dituzte gatazka egoeretan haur indigenek bizi ditzaketen arriskuak, eta dagokien komunitatearekin kontsultatu ondoren, ahalik eta prebentzio-neurri gehien hartu beharko dituzte. Ahal den heinean, indigenen lurraldeetan jarduera militarrek gauzatzea saihestu beharko lukete, eta horri dagokionez, Batzordeak Nazio Batuen Adierazpenaren 30. artikulua gogorarazten du; herri indigenen eskubideei buruzkoa” (Haurren Eskubideen Batzordea, 2009, par. 66).

4.2.2. Giza Eskubideen Kontseilua

Giza Eskubideen Kontseilua Nazio Batuen Batzar Orokorrak eratu zuen 2006an, giza eskubideak urratzen dituzten egoerak kontuan hartu eta horren inguruko gomendioak emateko. Atal honetan organo honen prozedura berezien jardunaren adibide batzuk aipatzen dira (Aditu independenteak, Lantaldeak eta Idazkaritza Nagusiko Ordezkaritza Bereziak), organo horren jarduera, gatazka egoeretan, EESKIekin zerikusia duten giza eskubideen gaiak ikertzea eta ikuskatzea baita.

26 CEDAW batzordearen 31. Gomendio Orokorrekin batera onartua.

- Yemengo giza eskubideen egoerari buruzko Nazioarteko eta Eskualdeko goi-mailako Adituen Taldea. 2019ko txostenean, onartu egiten da gatazka aurreko egiturazko indarkeria patriarkalaren eta gatazkaren bitarteko indarkeria larriagoaren arteko lotura: “Gatazkak larriagotu egin du egoera hori eta alderdiek baliatu egin dituzte genero-arauak eskubideak urratzeko edo urratze horien eragina larriagotzeko. Justizia penaleko sistemak eskaintzen zuen genero-indarkeriaren kontrako laguntza mugatua 2019an amaitu zen. Oro har, ordena-indarrak zuzeneko mehatxua izaten ziren emakumeen segurtasunerako, eta aldeek aktiboki eragozten zuten babes-sareak sortzea; faktore horiek guztiek areagotu egin dezakete ezberdintasuna eta genero-indarkeria” (Giza Eskubideen Kontseilua, 2019b, par. 74).
- Siriako Errepublika Arabiarrari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentea. 2020ko ekainean, batzorde horrek genero-azterketa bat aurkeztu zuen Idliben eta Alepon, 2019ko azaroaren eta 2020ko apirilaren artean izandako indarkeriaren areagotzeak eta gatazkek eragindako kalteei buruz; besteak beste, sexu- eta ugalketa-osasunerako funtsezkoak diren zerbitzuak ukatzea eta familien zama ekonomikoak arintzeko bide gisa neskaten ezkontzak erabiltzea Giza Eskubideen Kontseilua, 2020b, par. 101-108).

2020ko martxoan, etxebizitzarako eskubidearen urraketa dokumentatu zuen batzordeak, Siriako Armada Nazionalari loturiko talde armatuek eragindako konfiskazio eta arpilatze kasu ugarien ondorioz. Harrapaketa eta ondasunez jabetzeko ekintza gisa identifikatu zituen ekintza haiek Batzordeak, arpilatze gerra-krimena, alegia (Giza Eskubideen Kontseilua, 2020a, par. 41-42). Txosten horretan indarra hartzen du, gatazka egoeretan, EESKJen eta eskubide zibilen arteko loturak. Horrela, bada, neskek eta mutilek nazionalitatea eskuratzeko eragozpenek eta osasunerako eta hezkuntzarako irispiderik ezak, esplotazio eta salerosketa gai izateko arriskuan jartzen ditu (Giza Eskubideen Kontseilua, 2020a, par. 95).

DAESH edo ISISek, 2014ko abuztuan, Iraken eta Sirian herri yezidiaren (Êzîdî) eragindako krimen larriei –genozidioa barne– buruzko 2016ko txostenean, sexu-esklabotzaren, etxeko esklabotzaren eta behartutako ezkontzen eta neskatxa eta emakume yezidien bizitza eta osasunaren kontrako beste urratze larrien arteko lotura jaso zuen Batzordeak (Giza Eskubideen Kontseilua, 2016, par. 66-73 eta 130).

2012ko txostenean, Batzordeak ondorioztatu zuen Siriako Gobernuak setio-gerrako metodoak erabili zituela, gizakion funtsezko premiak (ura, elikagaiak, ostatua eta mediku-arreta) bere estrategia militarren parte gisa erabiliz. “Taktika horiek nazioarteko zuzenbide humanitarioak ezartzen dituen betebeharren zuzeneko urraketa dira; zuzenbideak eskatzen baitu zauritu eta gaixorik dauden pertsonak jaso eta artatu egingo direla eta laguntza humanitaria azkar eta oztoporik gabe igaroko dela bermatzeko. Laguntza humanitaria ukatzea, elikagaiak barne, luzatu egin da eremu askotan, eta bertako jendearengan malnutriziora eta goseak eragindako ahitura ekarri ditu. Populazio zibilaren kontra gosea gerra-metodo gisa erabiltzea debekatuta dago. Ekintza horiek oinarrizko beste betebeharrak batzuk ere urratzen dituzte, hala nola, behar besteko elikagaiak izateko eskubidea eta ahalik eta osasun maila altuena izateko eskubidea” (Giza Eskubideen Kontseilua, 2012, par. 132).

4.2.3. Nazioarteko Lan Erakundea

Nazioarteko Lan Erakundea (NLE) NBEaren hiruko agentzia bat da, eta gobernuak, enplegatzaileak eta 187 estatu kideetako pertsona langileak biltzen ditu lanerako arauak eta formula politikoak ezartzeko eta denentzat, emakume eta gizonentzat, lan duina sustatzeko politikak eta programak lantzeko.

2017an, NLEk bake eta erresilientziarako enplegu eta lan duinari buruzko Gomendioa onartu zuen (R205), eta horren bidez jarraibideak ematen dizkie estatuei gatazken eta hondamendien ondoriozko, edo horiek larriagotutako diskriminazioari erantzuteko. Estatuei honako betebeharrak hauek ezartzen dizkie: “a) emakumeen eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna errespetatzea, sustatzea eta egia bihurtzea, inolako diskriminaziorik gabe eta 1951ko ordainketa-berdintasunari buruzko 100. Hitzarmena eta 90. Gomendioa eta diskriminazioari (enplegua eta okupazioa) buruzko 1958ko 111. Hitzarmena eta 111. Gomendioa kontuan hartuta; b) pertsona bakarrik buru duten familiei arreta berezia jartzea, bereziki neska-mutikoak, emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak edo adinekoak direnean; e) genero-arrazoiengatik indarkeria modu oro prebenitzea eta zigortzea, bortxaketa, sexu-esplotazioa eta sexu-jazarpena barne, eta biktimak babestea eta laguntzea; i) migratzaile guztien eta krisialdiak jota dagoen herrialde batean dauden haien familietako kideen giza eskubideak herrialdeko bertako populazioarekiko berdintasunean errespetatuko direla bermatzea, nazioarteko xedapenak, lanaren nazioarteko arauak eta bestelako nazioarteko tresnak eta dokumentuak kontuan hartuta, dagokionaren arabera” (15. artikulua).

NLEk, era berean, adierazten du estatuek premiazko neurriak hartu behar dituztela behartutako edo nahitaezko lan modu guztiak prebenitzeko, hautemateko eta desagerrarazteko, behartutako edo nahitaezko lana egiteko pertsonen salerosketa barne, kontuan hartuta behartutako lanari buruzko 1930eko 29. Hitzarmena eta horren 2014ko Protokoloa, behartutako lana desagerrarazteko 1957ko 105. Hitzarmena eta behartutako lanari buruzko 2014ko 203. Gomendioa (neurri osagarriak)” (17. artikulua).

4.3. Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidea

Indarkeria armatuko egoeretatik ihesi doazen edo mehatxu jakin batzuei – salerosketa, esplotazioa eta sexu-indarkeria edo giza eskubideen ukatzea– aurre egin behar dieten emakumeak eta LGBTI kolektiboko pertsonak. Nazioarteko babesa behar duten pertsonen eskubideak aintzat hartuak dituzte bai 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioak (1951ko konbentzioa) –gai horretan lege-tresna nagusia izanik– eta giza eskubideei buruzko nazioarteko, eskualdeko eta nazioko beste hainbat tresnak ere. Eskubide horien edukia eta irismena giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera interpretatu behar da (Corte IDH, 2014, par. 37). 1951. Konbentzioak, II. Kapitulutik aurrera, EESKIetako batzuk aipatzen ditu; hala nola, hezkuntza, lana eta etxebizitza. 24.a artikuluan berariaz jasotzen dira emakumeek eta nerabeek lan-kontratu kolektiboen onurak jasotzeko dituzten eskubideak. Ameriketako erregioan, Errefuxiatuei buruzko 1984ko Cartagenako Adierazpena tresna berritzailea izan zen, aterpetutako pertsonaren definizioan jasotako zabaltasun objektiboagatik; hala ere, testu horretan ez dira EESKIak aipatzen, ez eta genero-berezitasunak ere.

Beste alde batetik, Afrikan Barnean Desplazaturiko Pertsonak Babesteko eta Laguntzeko Afrikako Batasunaren Konbentzioak (Kampalako Konbentzioa), 2012koa, VII. artikuluan xedatzen du gatazka armatua denean herrialde barnean desplazaturiko pertsonen babesa eta haienganako laguntza GENZ eta NZHren arabera gauzatu behar dela. Gainera, debekatu egiten die talde armatuei EESKIetarako irispidea eta haiek gozatzeko aukera ukatzea, behartuta errekrutatzea eta sexu-esklabotza eragitea, bereziki emakume, neska eta mutikoen kasuan. IX. artikuluan honako betebeharrak ezartzen die Estatuari: (i) edozein diskriminazio modu, sexu-indarkeria eta genero-indarkeria prebenitzea; eta (ii) desplazatuak bizi-baldintza duin eta seguruak izan ditzaten beharrezko neurrian hartzea eta oinarrizko zerbitzuak eskaintzea (ura, elikagaiak, etxebizitza, osasun-laguntza, etab.), sexu- eta ugalketa-osasunerako arreta eta sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza psikosoziala

barne; bai eta familiaburu diren emakumeei, emakume nagusiei, neskatxei eta nerabeei laguntzea ere.

4.4. Nazioarteko Zigor Zuzenbidea

Nazioarteko Zigor Zuzenbidea (NZZ) Zuzenbidearen adarra da, banakoen erantzukizun penal zehatzen eta krimenik larrienengatik –gerra-krimenak, gizateriaren kontrako krimenak, genozidioa eta tortura– zigor-bidetik erantzuteko betebeharra ezartzen duena (Castañeda, 2015: 29).

Zenbait EESKIren urraketa nazioarteko krimentzat har daiteke: Horrela, bada, besteak beste, elikadurarako eskubidea urra daiteke “[...] barneko gatazketan edo bestelako larrialdi egoeretan izaera humanitarioko elikagai-laguntza” jasotzea eragozten denean (EESK Batzordea, 1999a, par. 19). Elikadurarako eskubide hori urratzeak heriotza²⁷ eragiten duenean, nazioarteko giza hilketa izan daiteke, eta Erromako Estatutu izenez ezagutzen den Nazioarteko Zigor Auzitegiaren (NZA) Estatutuaren 8.2.1.1 artikuluan gerra-krimentzat jasota dago. Horren arrazoitze-ildo berean, elikagaietarako, mediku-arretarako edo edateko uretarako irispidea ukatzeak, esaterako, NZHk babestutako pertsonen heriotza eragin dezake eta, beraz, nazioarteko giza hilketa gerra-krimena izan daiteke (Schmid, 2016: 178).

Erromako Estatutuaren 21 eta 54. artikuluek ahalbidetzen dute –euren mandatuaren eremuan– Zigor Auzitegiko Fiskaltzak genero-analisi bat aplikatzea bere eskumenekoak diren krimen guztietan (NZA, 2014: 14). Genero-arrazoiengatik²⁸ indarkeriari dagokionez, NZAk bereizi egiten du genero-arrazoiengatik krimenen eta krimen sexualen artean:

- Genero-arrazoiengatik krimenak: sexu maskulino zein femeninoko pertsonen kontra, haien sexuagatik edo gizartean eraikitako genero-rolengatik haien kontra eragiten diren krimenak. Halako krimenak ez dira ezinbestean sexu-indarkeriatzat hartzen.

27 Portaeraren eta emaitzaren artean kausa-lotura egon behar du.

28 LGBTI kolektiboko pertsonen aurkako indarkeria-ereduen jazarpenetarako nazioarteko krimenaren aplikazioari buruzko argitalpena kontsultatzea gomendatzen da: Colombia Diversa (2020). *Los órdenes del prejuicio: los crímenes cometidos sistemáticamente contra personas LGBT en el conflicto armado colombiano*: <https://colombiadiversa.org/colombiadiversa2016/wp-content/uploads/2020/07/LIBRO-WEB-1.pdf>

- Sexu-krimenak: pertsona baten kontra eragindako sexu-izaerako ekintzak dira (fisikoak edo ez), edo hertsapenezko inguru bat edo pertsona horrek bere onespena emateko ezintasuna baliatuz, “egileak, indarrez edo indarra erabiliko delako mehatxuen bidez, pertsona horri eginarazi dion sexu-izaerako ekintzak” (NZA, 2014: 3). Nazioarteko Zigor Auzitegiak ezagutzeko eskumena duen sexu-krimenak honako hauek dira:
 - Gizateriaren kontrako delituak: bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia, behartutako esterilizazioa edo pareko larritasuna duen beste edozein sexu-indarkeria (Erromako Estatutuko 7.1.g artikulua).
 - Gerra-krimenak: bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia –7. Artikuluaren 2. Paragrafoaren f) atalean definitua–, behartutako esterilizazioa eta Genevako Hitzarmenen urratze larria eragiten duen sexu-indarkeriako beste edozein ekintza egitea (Erromako Estatutuaren 8.b.xxii eta 8.e.vi artikulua).

Nazioarteko Zigor Auzitegiak gaineratzen du sexu-krimenak eta genero-arrazoiengatiko krimenak direla talde nazional, etniko, arrazial edo erlijioso bat osorik edo partzialki suntsitzeko eragindakoak ere. “Beste krimen batzuk, hala nola tortura, mutilazioa, jazarpena, ekintza ankerrak eta pertsonaren duintasunaren kontrako irainek ere izan dezakete elementu sexual eta/edo generoari loturikoa” (NZA, 2014: 14).

5. Jurisdikzio-organoen jurisprudentzia eta doktrina

Justiziarako irispidea giza eskubideen urraketa larrien biktimek duten eskubidea da eta estatuentzat betebeharrak zehatz batzuk jasotzen ditu: eskubide horiek asetzeko baliabide judizial eraginkorrak bermatzea eta baliabide horietan aktiboki parte hartzea. 2005ean, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzeen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze larrien biktimek errekursoak jartzeko eta erreparazioa jasotzeko duten eskubideari buruzko Printzipioak eta Oinarrizko Jarraibideak onartu zituen Nazio Batuen Biltzar Nagusiak, eta horien arabera, honako hau bete behar dute estatuak: “a. urraketak eragozteko, lege- eta administrazio-xedapenak eta bestelako neurriak hartzea; b. urraketak eraginkortasunez, azkar, osorik eta modu inpartzialean ikertzea eta, kasu bada, ustezko erantzuleen kontrako neurriak hartzea nazioarteko eta nazioarteko zuzenbideari atxikita; c. Giza eskubideen edo zuzenbide humanitarioaren urraketa baten biktima direla diotenei justiziarako irispide bidezko eta eraginkorra bermatzea [...], urraketa erantzulea zein den alde batera utzita; eta d. biktimei baliabide eraginkorrak eta erreparazioa ematea (3. artikulua).

Horren ilduan, gatazka armatuetan EESKIen aplikazioari buruz jurisdikzio-organoei egindako jurisprudentzia- eta doktrina-garapenak (epaiak eta kontsulta-iritziak) mugatuak izan dira edo ia batere ez eskubide horiek emakumei eta LGBTI kolektiboko pertsonen babesteari dagokionez. EESKIen urraketak identifikatzen dituzten nazioarteko auzitegien lehenengo erabakiek ez dakarte genero-analisirik eta ez dituzte islatzen emakumeen eta genero-identitate ez binarioa edo sexu-orientazio dibertsoa duten pertsonen bizitzan eta gorputzetan duten eragina. Hala eta guztiz

ere, atal honetan jasotzen dira babeserako marko juridikoa interpretatzeko potentziala dutela uste delako²⁹.

5.1. Nazioarteko auzitegiak

a) Nazioarteko Justizia Auzitegia

Palestinako lurretan harresi bat eraikitzearen ondorio juridikoei buruzko Kontsulta-iritzian, Nazioarteko Justizia Auzitegiak (NJA) oso azterketa zorrotza egin zuen gatazka armatuaren bitartean, Palestinako lurraldearen okupazio-egoeran, hain zuzen, NZH eta GENZen araubideen baterako aplikazioari buruz. NJAk populazio zibilaren babes eta ongizate kontzeptuei heltzen die, eta EESKien babesari ematen dio garrantzia (NJA, 2004):

“Adierazi behar da Israelek okupaturiko lurraldeak 37 urtetik gora egon direla haren lurralde-jurisdikzioaren mende, Potentzia okupatzaile gisa. Horretan oinarrituta dagozkion eskumenak erabiltzean, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren xedapenak bete beharra dauka Israelek. Gainera, eskumena Palestinako agintariei eskualdatu zaien esparruetan eskubide horien gauzapenerako inolako eragozpenik ez jartzeko betebeharra dauka” (112. or.)

“Auzitegiaren iritziz, harresia eraikitzeak eta horri datzekion araubideak [...] eragotzi egiten diete kaltetutako pertsonen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren eta Haurraren Eskubideei buruzko Nazio Batuko Konbentzioan jasotzen diren lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta bizi-maila egokirako eskubideak erabiltzea. Azkenik, harresia eraikitzeak eta horri datzekion araubideak, aldaketa demografikoak eragiten dituztenez [...], Genevako Laugarren Hitzarmenaren 49. artikuluan 6. paragrafoan xedatzen dena eta 120 supra paragrafoan aipatzen diren Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak urratzen dituzte.

“[G]ainera, Israelek harresia eraiki izanak Israelek okupaturiko lurraldean bizi diren palestinarrek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gozatzeari eragiten dizkien murrizketek ez dituzte betetzen Eskubide

29 Horrekin, ez da ahazten sexu-indarkeriari heltzen dioten epai historikoetan ezarritako estandarren garrantzia; hala nola, Antzinako Jugoslaviarako Auzitegi Berezien emandakoak (Karadžić edo Kunaran, Kovač eta Vuković), Ruanda (Akayesu) eta Sierra Leona (Charles Taylor), nahiz eta ez diren dokumentu honetan aztertuko.

Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren 4. artikuluan xedatzen diren baldintzak; alegia, horren aplikazioaren xede bakarra gizarte demokratiko batean ongizate” (par. 136).

b) Antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegia

JNZaren *Kordić eta Čerkez* kasua Balkanetako gatazka armatuaren testuinguruan gertatu ziren erakunde kultural eta erlijiosoan eta altxor eta monumentuen arpilatze eta suntsipenari buruzkoa da. Erabili ziren argudioetako batzuen arabera, ondasun kulturalen kontrako krimen gehienak hezkuntza- eta erlijio-helburuekin lotuta zeuden. Horren testuinguruan, ondasun kulturalak komunitateentzat zuten esanahiagatik babesten ziren batez ere (*Prosecutor v Dario Kordic and Mario Cerkez. Case N° T-95-14/2-T. Judgment, 2001, par. 206-207*).

c) Nazioarteko Zigor Auzitegia

Germain Katanga kasua Kongoko Errepublika Demokratikoan 2003ko otsailaren hasieran gertatutako gerra-krimen eta gizateriaren aurkako krimenei buruzkoa da. Zigor-epaian ezarri zuten Katanga, Forces de Résistance Patriotique d’Ituri (FRPI) –Ituri Probintziako talde matxinatu armatua– taldearen komandante zen aldetik, Bogoroko (Ituri) erasoaren plangintzan eta gauzapenean ezinbesteko eragile izan zela. Auzitegiak ondorioztatu zuen 2003ko erasoetan, talde armatuetako kideek gerra-krimenak eragin zituztela bortxaketaren eta sexu-esklabotzaren bidez. Zenbait emakume preso hartu zituzten eta borrokalarien “emazte” bihurtzera behartu zituzten; batik bat, izaera sexualeko ekintzak eta etxeko lanak egitera behartu zituzten eta horrek larri kaltetu zuen emakume horien osasun fisiko eta mentala. Epaian ezarri zen ekintza horiek emakumeen kontrako indarkeria-eredu izan zirela gatazkaren gorakadan (*Prosecutor v. Germain Katanga. ICC-01/04-01/07, 2014, par. 985, 1000-1023*).

5.2. Erregio-auzitegiak

a) Giza Eskubideen Europako Auzitegia

Zipre Turkiaren kontra kasuan, populazio greziar-zipretarren jabetzetarako –etxebizitzak barne– irismena, erabilpena eta kontrola ukatzea aztertu zuen Europako Auzitegiak; gertaera horiek Turkiak, 1974an, Zipreko ipar aldean egindako operazio militarren eta okupazioaren baitan gertatu ziren. Europako

Auzitegiak ondorioztatu zuen egoera hori bizitza pribatu eta familiarerako eskubidearen urraketa izan zela, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan jasotzen dena (*Zipre vs. Turkia kasua. Aplikazio zk: 25781/94. Epaia*, 2001, par. 296-301).

b) Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarra

Hainbat aldiz eman du iritzia Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarrak (GEAI) Guatemalako gatazka armatuak iraun zuzen bitartean emakumeen kontra eragindako sexu-indarkeriak osasunean izandako eraginei buruz. Hain zuzen, *Dos Erreseko Sarraskia vs. Guatemala Kasua* honako hau adierazi zuen: “[]Sexu-bortxaketa estatuaren jarduna izan zen, sarraskien testuinguruan gauzatua eta emakumearen duintasun kultural, sozial, familiar eta banakoa suntsitzeko egin. Las Dos Erreseko kasuan, haurdun zeuden emakumeei abortuak eta bestelako ekintza ankerrak eragin zizkieten [...]. Orobat, Nieves Gomez Dupuis psikologoak 2005eko abuztuan egindako txostenean jasotzen du tortura eredugarriek, sexu-bortxaketek eta muturreko krudelkeriak kalte larria eragin zutela biktimen osasun mentalean” (*Dos Erreseko Sarraskia vs. Guatemala kasua. Aurretiazko salbuespena. Funtsa, Erreparazioak eta Kostuak*. 2009, par. 139)

2012an, *Rio Negroko sarraskia vs. Guatemala kasuaren* epaian azpimarratu zuen gatazkaren aurreko “lur erreko” operazioekin lotutako egoerek haurdun zeuden emakumeak hiltzea eta behartutako abortuak eragitea zutela xede.

Hego Konoan izandako Condor Operazioaren baitan gertatu ziren emakume haurdunen behartutako desagertzeak eta neska eta mutikoez bereganatzeak aztertu zituen GEAIk. *Gelman vs Uruguai* kasuan, Maria Claudia Garciaren atxilotu zutenean haurdun egotea, bereziki kaltetzeko erabilia izan zela ezarri zuen: “Kasu horretako gertakariak emakumearen amatasun askeari eraso egiten dion gorputzaren kontzeptzio berezi bat dagoela erakusten dute, eta askatasun hori ezinbestekoa da emakumeen nortasunaren garapen askeko” (*Gelman vs. Uruguai kasua. Funtsa eta Erreparazioak*. 2011, par. 97).

Kolonbiako gatazkari buruz, eta emakumeen behartutako desplazamenduari dagokionez, *Mapiripaneke sarraskia vs. Kolonia kasua*, honako hau ondorioztatu zuen Auzitegiak: “Desplazatuak urrakortasun areagotuaren arrazoiak eta adierazpenak hainbat ikuspegitik aztertu dira. Urrakortasun hori areagotu egiten da landa-eremuetakoak direlako, eta kalteturiko pertsonengan ondorio psikologiko larriak hauteman dira. Arazo horrek

bereziki eta gogor eragiten die emakumeei, gehienetan familiako buru direlako eta desplazatutako populazioaren erdia baino gehiago direlako. Oro har, emakumeak, haurrak eta gazteak dira desplazamenduek gehien kaltetzen dituzten taldeak. Barneko desplazamenduaren krisiak, aldi berean, segurtasun-krisia dakar; izan ere, barneko desplazatuen taldeak errekrutamendu foku edo baliabide bilakatzen dira talde paramilitarrentzat, narkotrafiko edo gerrillako taldeentzat” (*Mapiripán vs. Colombia*, 2005, par. 96.59).

Ituangoko sarraskia vs. Kolonbia kasua, GEAIk ezarri zuen etxebizitzak erretzea herritarrentzat ezinbestekoa zen ondasun baten urraketa larria izan zela. Hori dela eta, etxeak erretzearen eraginez, ondasun materialak ez ezik, zenbait kasutan, bizitza osoa herrixka horretan bizi izan zirenenen erreferente sozial osoa ere galdu zen. Etxeak erreta, galera ekonomikoez gain, bizitzeko funtsezko baldintza galdu zituzten herritarrek, eta horren ondorioz, Giza Eskubideei Buruzko Amerikako Konbentzioaren 21. Artikuluan jasotzen den jabetzarako eskubidearen urraketa are larriagoa izan zen (*Ituangoko sarraskiak vs. Kolonbia kasua*, 2006, par. 182-183).

5.3. Nazio-auzitegiak

a) Sepur Zarco kasua (Guatemala)

2016an, Guatemala hiriko Arrisku Handieneko A Auzitegiak militarren hainbat buru zigortu zituen gizateriaren kontrako delituak egiteagatik, bereziki: Izabal eta Alta Verapaz departamentuetan, 1982 eta 1983 urteen artean, q’eqchí emakumeen kontra eragindako sexu-indarkeria eta esklabotza eta etxeko esklabotza. Gertakari horiek Guatemalan, barneko gatazka armatuaren testuinguruan jazo ziren. Epaian hainbat lotura finkatzen dira emakumeen kontrako indarkeriaren eta q’eqchi kultura suntsitzeko asmoaren artean; eta, era berean, indigenen mundu-ikuskeraren kontzeptu zehatzak aipatzen dira emakumeek pairatu zuten sexu- eta etxeko esklabotzak eragin zizkien kalteak azaltzeko. Auzitegiak ondorioztatu zuen emakumeen kontra eragin zituzten ekintza horien helburua komunitatearen baitan haustura kulturala eragitea zela:

“Ikuskatze kulturalean egiaztatzen da Sepur Zarcoko emakumeen kontra sexu-bortxaketa sistematikoak eragitean, komunitateetan kultur hausturak gertatu zirela, eta horrek esan nahi du sexu-bortxaketak eta zerbitzurako erabili izanak biktimak berak eta beren familia-nukleoa kaltetu zituztela, suntsitu egin baitzen; baina horrez gain, komunitate osoari eragin ziola,

eta horren ondorioz, ezin izan zutela ez beren kultura ez beren ohiko bizimodua berreskuratu. Familiako kideen desagerrarazteak eta hilketak, eskolak ixteak, eliza suntsitzeak, seme-alabak mendian hiltzen ikusteak balioak galtzea eragin zien, eta horrek beren autoestimua kalte zuen. Biktima bakoitzaren egoerari buruzko azterketa bat aurkeztu zuten, eta hor egiaztatzen da nolako zen haien bizimodua destakamentu militarra Sepur Zarcora iritsi aurretik eta ondoren, eta nola gertatu ziren aldaketak biktima bakoitzaren bizitzan; eta adierazten da haien mundua hautsi egin zela. Peritaje horren funtsezkoa tala da zehaztea emakume horiek sistematikoki bortxatzean giza suntsipena eta suntsipen kulturala zituztela helburu; izan ere, Sepur Zarcoko komunitatearen egitura patriarkala zen; beraz, gizonak desagertzean, emakumeak bakarrik geratu ziren, destakamentuko soldaduen mende” (*Sepur Zarco kasua. Epaia C-01076-2012-00021*, 2016: 476)³⁰.

b) Helena kasua (Kolonbia)

2019an, Kolonbiako Auzitegi Konstituzionalak azpimarratu egin zuen barneko gatazka armatuaren biktimen osasunerako funtsezko eskubidea indarrean zela. Helenaren kasuan, 14 urterekin FARCen indarrez errekrutatu zuten emakumea eta antisorgailuak erabiltzera eta abortatzera behartu zutena, Auzitegi Konstituzionalak honako hau ondorioztatu zuen: “Sexu-indarkeriaren biktimen osasunari arreta osoa ematea arauzkoa da, bai jurisprudenzian bai konstituzioan ezarri diren baldintzetan. Beraz, zerbitzu horiek osotasunean ematea bermatzea eragozten edo debekatzen duten neurriak, eskuragarritasun, irisgarritasun eta kalitate elementuei erantzuten dietenak, konstituzioaren kontrakoak izango dira Kolonbiako estatuari berehala eska dakiokkeen betebeharren bat urratzeko ahalmena dutelako eta biktima haien osasunerako funtsezko eskubidea urratzen dutelako” (*Epaia SU599/19*, 2019, sek. 2.10).

30 Ikuskatze kulturalari dagokionez, ikusi: Velásquez Nimatuj (2019).

6. Gatazka armatuetan EESKIen babesean aurrera egiteko erronkak eta aukerak

Ezin da ukatu egungo gatazka armatuak gero eta urrunago daudela haien egitura tradizionaletatik: antzeko posizio politiko eta ekonomikoa duten bi estaturen artean gertatzen direnak, alegia. Mende honetako gatazka armatuetan dagoen asimetria, gerra-baliabide eta metodoen aldaketa (gerra erabat deshumanizatzen duten tripulaziorik gabeko hegazkinak, informazio-sistemak edo arma autonomoak erabiliz), edo eragile berriak agertzea –krimen antolatua, kasu– erronka berriak planteatzen dituzten faktoreetako batzuk dira; eta erronka horiek lotuta daude mendekotasunean oinarrituta dagoen egungo eredu ekonomiko eta sozialaren berregitearekin eta sakontzearekin, alde batetik, eta giza eskubideen babesarekin, bestetik.

Luzaroan okupazio-egoeran dauden Palestinako edo Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatuetan, esaterako, agerian geratzen dira giza eskubideen nazioarteko organoen erabakiak ezartzeko mekanismoen ahultasuna eta justiziara iristeko eragozpenak; nazio okupatzaileen segurtasun-politikak pertsonen eskubideen ginetik daudelako.

Oro har, EESKIen urraketak eskubide zibil eta politikoen kontrako gehiegikeriak gertatzen diren “atze-oihal” gisa kontzeptualizatu izan dira. Hala ere, gatazka armatuetan gauzatu izan dituzten basakerien konplexutasunak ezinbesteko bihurtzen du EESKIak populazio zibilararen bizitza eta ongizatea babesteko berebizikotzat txertatzea, indarkeria mota guztiek eragindako kalteen izaera multidimentsionala kontuan hartuta. Hori dela eta, halako jokalekuetan nabarmengarrienak diren nazioarteko tresnak aztertu dira dokumentu honetan, eta GENZ aplikatzeari eman zaio garrantzia, pertsona zibilak babesteko marko juridikoa indartzeko duen potentzialtasunagatik

eta, zehazkiago, emakumeak eta LGBTI kolektiboko pertsonak babesteko estandar zehatzak aplikatzeko duen potentzialtasunagatik.

Azken urteetan, bereziki erakundeek, mugimendu sozialek eta akademiak giza eskubideak babesteko mekanismoak –nazionalak, eskualdekoak eta nazioartekoak– gero eta gehiago erabili izanak berebiziko garrantzia izan du EESKIak eskatzeko eta errebindikatzeko orduan. Errealitate horren isla dira gero eta jurisprudentzia handiagoa egotea eta hitzarmenak gainbegiratzeko eta ikuskatzeko organoen aipamen eta iritziak. Bereziki, nazioz gaundiko legezko aktibismoa eta mugimendu feministaren eta giza eskubideen aldeko erakundeen arteko egituraketa funtsezkoa izaten ari da indarkeria armatuko testuinguruetan genero-inpaktuak identifikatzeko, kontzeptualizatzeko eta salatzeke eta, finean, eremu horretan dagoen zigorgabetasunaren aurka borrokatzeke, genero-krimenen aurrean justizia bilatzeko bidea luzea, zaila eta mantsoa den arren.

Horrela, genero-ikuspegia arauzko justizia-sistemaren eta bestelako mekanismo batzuen –egiaren batzordeak, esaterako– analisirako tresna gisa gauzatu izanak begirada zabaltzeko eta kalte indibidual eta kolektiboen aurrean egokiagoak diren egia, justizia eta erreparaziorako neurriak ezartzeko aukera ematen du, giza eskubideen banaezintasuna eta interdependentzia kontuan hartuta.

Aurrekoari lotuta, ezinbestekoa da diskriminazioa eragiten duten botere-harremanak kolokan jarriko dituen ikuspegi zabal eta eraldatzailea aplikatzea, eta ez sexu-indarkeria eta horren elementu ikusgarrienak soilik borrokatzea. Horregatik, nazioarteko komunitateak indarkeria armatuko egoerei eman beharreko erantzunek bat etorri behar dute inklusibitatearen eta interseksionalitatearen printzipio feministekin (Scheyer, 2019), eta botere-harreman patriarkalak, hetenormatiboak, kolonialak, kapitalistak eta inperialistak erreproduzitzen dituen segurtasun eta bake ikuspegi hegemoniko eta liberala zalantzan jarri behar dute.

7. Erreferentziak

- ACNUDH (s.f.). *Mitos e ideas falsas sobre los derechos económicos, sociales y culturales*.
<https://www.ohchr.org/SP/Issues/ESCR/Pages/MythsandmisconceptionsonESCR.aspx>
- Altafin, C. (2015). *Economic, social and cultural rights of civilians in contexts of armed conflict and occupation: An international law perspective* [Doktorego-tesia].
<https://doi.org/10.2870/60236>
- Amnistía Internacional (2020). *Legacy of terror. The plight of Yezidi child survivors of ISIS*.
<https://www.amnesty.org/download/Documents/MDE1427592020ENGLISH.PDF>
- Aolain, F. (2020). *The Gender of Occupation*. Social Science Research Network.
<https://papers.ssrn.com/abstract=3633511>
- Baaz, M. E. eta M. Stern (2013). *Sexual Violence as a Weapon of War?: Perceptions, Prescriptions, Problems in the Congo and Beyond*. Zed Books, Londres.
- Balcázar Moreno, A. et al. (2018). *The War Report 2017. Gang violence in Colombia, Mexico and El Salvador*. Geneve Academy & Faculty of Law Université de Genève.
<https://www.geneva-academy.ch/joomlatools-files/docman-files/Gang%20violence%20in%20Colombia,%20Mexico%20and%20El%20Salvador.pdf>
- Bellal, A. (2018). *The War Report. Armed Conflicts in 2017. The Geneva Academy of International Humanitarian Law*. <https://www.geneva-academy.ch/joomlatools-files/docman-files/The%20War%20Report%20Armed%20Conflicts%20in%202017.pdf>

Bernarding, N. *et al.* (2020). *The women, peace and security agenda implementation matters*. Policy Briefing on the Third National Action Plan of the German government. The Feminist for Feminist Foreign Policy.

https://static1.squarespace.com/static/57cd7cd9d482e9784e4ccc34/t/5edf35231d36bb64cc54436f/1591686462720/1325+Policy+Briefing_EN.pdf

Cameron, L. *et al.* (2019). *Comentario del Convenio de Ginebra I y Artículo 3*, CICR.

<https://www.icrc.org/es/publication/convenio-del-convenio-de-ginebra-i-y-articulo-3>

Castañeda, M. (2015). *El Derecho Internacional de los Derechos Humanos y su recepción nacional*. Comisión Nacional de los Derechos Humanos. México.

<http://appweb.cndh.org.mx/biblioteca/archivos/pdfs/Observaciones-Comite-ONU-vol-II.pdf>

CEDAW Batzordea (2010). 28. Gomendio Orokorra: Emakumearen kontrako diskriminazio oro desagerrarazteari buruzko Konbentzioaren 2. Artikulua. Dok NBE CEDAW/C/GC/28.

– (2013). 30. Gomendio Orokorra, emakumei buruz gatazken prebentzioan, gatazka-egoeretan eta gazta osteko egoeretan.

– (2014a). Emakumearen kontrako diskriminazioa desagerrarazteko batzordean 31. gomendio Orokorra eta Haurren Eskubidei buruzko 18. Ohar Orokorra, jardunbide kaltegarrii buruzkoa eta bestearekin batera onartua. Dok NBE CEDAW/C/GC/31/CRC/C/GC/18.

– (2014b). 32. Gomendio Orokorra: Emakume errefuxiatuaren genero-dimentsioak, emakumeen aterpetzea, nazionalitatea eta aberrigabezia. Dok NBE CEDAW/C/GC/32.

– (2015). 33. Gomendio Orokorra: Emakumeen justiziarako irisgarritasuna. Dok NBE CEDAW/C/GC/33.

– (2016). 34. Gomendio Orokorra: Landa-eremuko emakumeen eskubideak. Dok NBE CEDAW/C/GC/34.

– (2017a). 35. Gomendio Orokorra: genero-arrazoiengatik, emakumeen kontrako indarkeria (Act. OG 19). Dok NBE CEDAW/C/GC/35.

– (2017b). 36. Gomendio Orokorra: Nesken eta emakumeen hezkuntzarako eskubidea. Dok NBE CEDAW/C/GC/36.

Centro de Derechos Reproductivos (2020). *Violencia reproductiva en el conflicto armado colombiano. Una mirada con lentes de género y derechos reproductivos.*

http://www.reproductiverights.org/sites/default/files/documents/Violencia%20reproductiva%20en%20el%20conflicto%20armado%20colombiano_Reporte%20%281%29.pdf

Cerqueira, D. (2020). *El derecho a un medio ambiente sano en el marco normativo y jurisprudencial del Sistema Interamericano de Derechos Humanos.* Fundación para el Debido Proceso (DPLF).

<http://dplf.org/es/resources/el-derecho-un-medio-ambiente-sano-en-el-marco-normativo-y-jurisprudencia-del-sistema>

CICR (2015). *El derecho internacional humanitario y los desafíos de los conflictos armados contemporáneos.* Dok 32IC/15/11.

<https://www.icrc.org/es/document/el-derecho-internacional-humanitario-y-los-desafios-de-los-conflictos-armados>

– (2020). *Gerrako presoei eman beharreko tratuari buruzko 1949ko Genevako III. Hitzarmenaren gaineko Iruzkina 2020.*

<https://www.icrc.org/es/doc/resources/documents/treaty/treaty-gc-3-5tdkwx.htm>

Cocomá Ricaurte, A. eta J. Laguna Trujillo (2020). *La violencia reproductiva: Una categoría de análisis necesaria en las transiciones.* LSE. Women, Peace and Security Blog.

<https://blogs.lse.ac.uk/wps/2020/06/24/la-violencia-reproductiva-una-categoria-de-analisis-necesaria-en-las-transiciones>

EESK Batzordea (1991). 3. Gomendio Orokorra: parte diren estatuen betebeharen izaera. Dok ONU E/1991/23.

– (1997). 7. Gomendio Orokorra: Etxebizitza egokirako eskubidea, behartutako etxegabetzeak.

– (1999a). 12. Gomendio Orokorra: Elikadura egokirako eskubidea. Dok NBE E/C.12/1999/5.

– (1999b). 13. Gomendio Orokorra: Hezkuntzarako eskubidea. Dok NBE E/C.12/1999/10.

– (2000). 14. Gomendio Orokorra: Ahalik eta osasun mailarik altuena gozatzeko eskubidea.

– (2002).15. Gomendio Orokorra: Ura izateko eskubidea. Dok NBE E/C.12/2002/11.

- (2005). 18. Gomendio Orokorra: Lanerako eskubidea. Dok NBE E/C.12/GC/186.
- (2006). 22. Gomendio Orokorra: Sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea. Dok NBE E/C.12/GC/22.
- (2007). 19. Gomendio Orokorra: Gizarte-segurantzarako eskubidea. Dok NBE E/C.12/GC/19.
- (2009a). 21. Gomendio Orokorra: Pertsona orok bizimodu kulturalen parte hartzeko eskubidea. Dok NBE E/C.12/GC/21.
- (2009b). 30. Gomendio Orokorra: Diskriminaziorik eza eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak. Dok NBE E/C.12/GC/202.
- (2016). 23. Gomendio Orokorra: Lan-baldintza bidezko eta asegarrietarako eskubidea. Dok ONU E/C.12/GC/23.

Escola de Cultura de Pau (2020). *Alerta! Informe sobre conflictos, derechos humanos y construcción de paz*. Icaria.

<https://escolapau.uab.cat/img/programas/alerta/alerta/20/alerta20e.pdf>

Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarra (GEAI) (1999). Villagrán Morales eta beste batzuk vs. Guatemala kasua. Funtsa. Serie C. N^o. 63.

- (2005). Mapiripango sarraskia vs. Kolonbia kasua, Serie C N^o. 134.
- (2006). Ituangoko sarraskiak vs. Kolonbia, Serie C N^o. 148.
- (2009). Las Dos Erreseko sarraskia vs. Guatemala. Aurretiazko salbuespena, Funtsa, Erreparazioak eta Kostuak, Serie C N^o. 211.
- (2011). Gelman vs. Uruguai kasua. Funtsa eta Erreparazioak, Serie C N^o. 221.
- (2014). Aholku-iritzia OC-21/14 2014ko abuztuaren 19koa. Serie A N^o. 21: Haurren eskubideak eta bermeak migrazioaren testuinguruan eta/edo nazioarteko babesa behar duten kasuetan.
- (2017). Aholku-iritzia OC-23/17 2017ko azaroaren 15ekoa Serie A N^o. 23: Ingurumena eta Giza Eskubideak.
- (2020). Lhaka Honhat (Gure Lurra) elkarteko komunitate indigenak vs. Argentina kasua, Serie C N^o. 400.

Giza Eskubideen Batzordea (2004). 31. Gomendio Orokorra: Hitzarmenaren parte diren estatuei ezarritako betebeharrak juridiko orokorraren izaera. Dok NBE CCPR/C/21/Rev.1/Add.13.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (CEDH) (2001). Zipre vs. Turkia kasua. Aplikazio zk. 25781/94. Epaia.

- Giza Eskubideen Kontseilua (2006). Biltzar Nagusiaren 60/251 Ebazpena aplikatuz, Libano eta Israelerako Misioa. Dok ONU A/HRC/2/7.
- (2012). Siriako Errepublika Arabiarrari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentearen Txostena. Dok ONU A/HRC/25/65.
 - (2016). Siriako Errepublika Arabiarrari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentearen Txostena. Dok ONU A/HRC/32/CRP.2.
 - (2017). Errelatore Bereziaren txostena, exekuzio arbitrarioei dagokienez genero-ikuspegia hartzeari buruzko exekuzio estrajudizial, sumario edo arbitrarioei buruzkoa. Dok ONU A/HRC/35/23.
 - (2018). Errelatore bereziaren txostena, arriskurik gabeko ingurumen garbi, osasungarri eta jasangarriaz gozatzearekin lotutako giza eskubideen betebeharrei buruzkoa. Dok ONU A/HRC/37/59.
 - (2019a). Siriako Errepublika Arabiarrari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentearen Txostena. Dok De la ONU A/HRC/42/51.
 - (2019b). Giza eskubideen egoera Yemenen, 2014ko irailaz geroztik gauzatutako urraketak barne. Dok ONU A/HRC/42/17.
 - (2020a). Siriako Errepublika Arabiarrari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentearen Txostena. Dok ONU A/HRC/43/57.
 - (2020b). Siriako Errepublika Arabiarrari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentearen Txostena. Dok ONU A/HRC/44/61.
- González, E., Hernández Zubizarreta, J. eta P. Ramiro (2018). “Regular a las empresas para defender los derechos humanos: Un desafío global”. *Revista Pueblos*, 76.
<http://omal.info/spip.php?article8561>
- Guzmán Rodríguez, D. E. eta Prieto Dávila, S. C. (2013). “Acceso a la justicia. Mujeres, conflicto armado y justicia”. *Dejusticia*.
https://develop.dejusticia.org/wp-content/uploads/2017/04/fi_name_recurso_364.pdf
- Haurren Eskubideen Batzordea (2009). 11. Gomendio Orokorra: Haur indigenak eta haien eskubideak, Konbentzioaren dela bide. Dok NBE CRC/C/GC/11.
- (2016). 20. Ohar Orokorra: Haurren eskubideen eraginkortasuna nerabetasunean. Dok NBE CRC/C/GC/20.
 - (2017). 21. Ohar Orokorra: Kaleko Haurrak. Dok ONU CRC/C/GC/21.

- Heidari, S. *et al.* (2019). “Sexual and reproductive health and rights in humanitarian crises at ICPD25+ and beyond: Consolidating gains to ensure access to services for all”. *Sexual and Reproductive Health Matters*, 27(1), 343-345.
<https://doi.org/10.1080/26410397.2019.1676513>
- Human Rights Watch (2018). *Audacity in Adversity. LGBT Activism in the Middle and North Africa*.
https://www.hrw.org/sites/default/files/report_pdf/lgbt_mena0418_web_0.pdf
- International Institute for Strategic Studies (2020). *The Armed Conflict Survey 2020*. The worldwide review of political, military and humanitarian trends in current conflicts.
- Kolonbiako Egiaren Batzordea. (2020). Genero Lantaldearen urteko balantzea. Egiaren Batzordea. 2018ko azarotik 2019ko abendura.
https://comisiondelaverdad.co/images/zoo/publicaciones/archivos/Balance_grupo_trabajo_genero_2018-2019.pdf
- Kolonbiako Konstituzio Auzitegia (2019). Ebazpena SU599/19, Espedientea T-7.396.064.
- Langford, M. *et al.* (argtz.) (2017). *La lucha por los derechos sociales. Los fallos judiciales y la disputa política por su cumplimiento*.
<https://www.dejusticia.org/publication/la-lucha-por-los-derechos-sociales>
- Madrigal-Borloz, V. eta Boly Barry, K. (2020). *The inclusion of LGBT people in education settings; of paramount importance to “leaving no one behind”*.
<https://www.ohchr.org/EN/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=25094&LangID=E>
- Margalit, A. (2018). “Still a blind spot: The protection of LGBT persons during armed conflict and other situations of violence”. *International Review of the Red Cross*, 100(907-909), 237-265.
<https://doi.org/10.1017/S1816383119000201>
- Melzer, N. (2019). *Derecho internacional humanitario. Una introducción integral*. CICR.
<https://www.icrc.org/es/publication/derecho-internacional-humanitario-una-introduccion-integral>
- Mendia Azkue, I. (2017). “Sarrera. Emakumeen ekintza politikoa egia, justizia, erreparazioa eta berriro gertatuko ez delako bermerako eskubidearen alde”, Mendia Azkue, I., Guzmán Orellana, G. eta Zirion Landaluze, I. (argtz.). *Generoa eta Trantsiziozko Justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka*. Hegoa Institutua. Bilbo. 15-32.
<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/362>

- Mendia Azkue, I. eta Guzmán Orellana, G. (2016). *En tierra ocupada. Memoria y resistencias de las mujeres en el Sáhara Occidental*. Hegoa Institutua. Bilbo.
http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/298/En_tierra_ocupada.pdf?1488539885
- Mottershaw, E. (2008). “Economic, Social and Cultural Rights in Armed Conflict: International Human Rights Law and International Humanitarian Law”. *The International Journal of Human Rights*, 12(3), 449-470.
<https://doi.org/10.1080/13642980802069674>
- Nahhal, M. (2017). “Do gender approaches bring something new to the study of war? Disrupted”. *The Feminist Foreign Policy Issue*, 1, 45-48.
<https://static1.squarespace.com/static/57cd7cd9d482e9784e4ccc34/t/5ee780af22db6704c9317390/1592230069903/Disrupted+Issue+1+-+The+Feminis+t+Foreign+Policy+Issue+-+PDF.pdf>
- Nazioarteko Justizia Auzitegia (NJA). (1996). Arma Nuklearren mehatxu edo erabileraren legezkotasunari buruzko aholku-iritzia.
- (2004). Palestinako Lurralde Okupatuan Harresia Eraikitzearen Legezko Ondorioei buruzko aholku-iritzia.
 - (2005). Kongoko Lurraldeko Jarduera armatuei buruzko kasua (Kongoko Errepublika Demokratikoa vs. Uganda).
- Nazioarteko Zuzenbideko Batzordea (2011). Nazioarteko Zuzenbideko Batzordearen Txostena. Dok ONU A/66/10. Batzar Nagusia NBE.
- (2019). Nazioarteko Zuzenbide Orokorreko aginduzko arauari buruzko ondorio-proiektuen testua. Dok ONU A/74/10.
- Nazioarteko Zigor Auzitegia (1995). Prosecutor v Dusko Tadić (‘Dule’). Case N° IT-94-1. Appeals Chamber, Decision on the Defence Motion for Interlocutory Appeal on Jurisdiction.
- (1997). Prosecutor v Tadić. Case N° IT-94-1-T. Judgment Trial Chamber.
 - (2001). Prosecutor v Dario Kordic and Mario Cerkez. Case N° T-95-14/2-T. Judgment.
 - (2014a). Prosecutor v. Germain Katanga. ICC-01/04-01/07.
 - (2014b). Genero-arrazoiengatikoko sexu-krimenei buruzko politikaren gaineko dokumentua.
<https://www.icc-cpi.int/iccdocs/otp/PolicyPaperOnSexualAndGender-BasedCrimesSpa.pdf>

- Nazio Batuen Batzar Nagusia (1962). *Soberanía permanente sobre los recursos naturales*. 1803 Ebazpena (XVII), abenduaren 14koa.
- Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua (2000). Ebazpena 1325. Dok ONU S/RES/1325.
- Oberleitner, G. (2015). *Human Rights in Armed Conflict: Law, Practice, Policy*. Cambridge University Press.
<https://doi.org/10.1017/CBO9781316103869>
- O'Connell, P. (2012). *Vindicating Socio-Economic Rights: International Standards and Comparative Experiences*. Routledge.
<https://doi.org/10.4324/9780203126653>
- OIM-Misión Colombia, Caribe Afirmativo eta Colombia Diversa (2019). *¡Es ahora! Investigación de Derechos Económicos, Sociales y Culturales de personas afrodescendientes e indígenas LGBT, en cinco municipios de Colombia*.
https://caribeafirmativo.lgbt/wp-content/uploads/2019/05/Informe_Es_Ahora_2019_alta_fin2.pdf
- Rodríguez-Garavito, C. (2014). “El futuro de los derechos humanos”. *Sur - Revista Internacional de Derechos Humanos*, 11(20).
<https://sur.conectas.org/es/el-futuro-de-los-derechos-humanos-de-la-vigilancia-a-la-simbiosis>
- Rodríguez Peña, V. (2020). *Informe contextual sobre el aborto y la anticoncepción forzada a mujeres combatientes en el marco del conflicto armado*. La Mesa Por la Vida y la Salud de las Mujeres.
<https://despenalizaciondelaborto.org.co/wp-content/uploads/2020/06/Libro-Informe-ContextoFINAL-1-1.pdf>
- San Pedro, P. (2019). *Mujeres en zonas de conflicto*. Oxfam Intermón.
<https://oxfamilibrary.openrepository.com/bitstream/handle/10546/620690/bp-women-in-conflict-zones-290319-es.pdf?sequence=2&isAllowed=y>
- Scheyer, V. (2019). *Feminist Requirements of International Response to Violence: A Case-Study of the United Nations Security Council's action in Syria*. Centre for Feminist Foreign Policy.
<https://centreforfeministforeignpolicy.org/journal/2019/11/20/feminist-requirements-of-international-response-to-violence-a-case-study-of-the-united-nations-security-councils-action-in-syria>
- Schmid, E. (2016). *Taking Economic, Social and Cultural Rights Seriously in International Criminal Law* (2.^a ed.). Cambridge University Press.

- Simon, E. (d.g.). *Conflictos armados y protección de la dignidad humana: El derecho internacional humanitario*. UOC.
http://openaccess.uoc.edu/webapps/o2/bitstream/10609/68345/3/Conflictos%20armados%2C%20derechos%20humanos%20y%20democracia_M%C3%B3dulo%201_Conflictos%20armados%20y%20protecci%C3%B3n%20de%20la%20dignidad%20humana.pdf
- Tribunal de Mayor Riesgo A de Guatemala (2016). Caso Sepur Zarco. Sentencia C-01076-2012-00021.
- UNFPA (2015). *Maternal mortality in humanitarian crisis and in fragile settings*.
<https://www.unfpa.org/resources/maternal-mortality-humanitarian-crises-and-fragile-settings>
- UNODC (2018). *Global Report on Trafficking in Persons 2018*. Booklet 2: Trafficking in persons in the context of armed conflict. Dok ONU E.19.IV.2.
<https://www.unodc.org/unodc/data-and-analysis/glotip.html>
- Velásquez Nimatuj, I. A. (2019). “*La justicia nunca estuvo de nuestro lado*”: *Peritaje cultural sobre conflicto armado y violencia sexual en el caso Sepur Zarco*, Guatemala. Hegoa Institutua. Bilbo.
<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/409>
- Verri, P. (2008). *Diccionario de Derecho Internacional de los Conflictos Armados*, CICR.
- Vité, S. (2009). “Typology of armed conflicts in international humanitarian law: Legal concepts and actual situations”. *International Review of the Red Cross*, 91(873).
<https://www.icrc.org/en/doc/assets/files/other/irrc-873-vite.pdf>
- Women’s International League for Peace and Freedom (2019). *Women’s Economic, Social and Cultural Rights in Cameroon*. Parallel report to the UN Committee on Economic, Social and Cultural Rights.
https://www.wilpf.org/wp-content/uploads/2019/11/Cameroon-CESCR_EN.pdf
- (2020). *A WILPF Guide to Killer Robots*.
https://www.wilpf.org/wp-content/uploads/2020/04/WILPF_Killer-Robots-Guide_EN-Web.pdf

